

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren  
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de  
Bizkaia**

**2020**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	11
II.2 Kontuei buruzko iritzia .....	12
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	13
III.1 Aurrekontua, kontu orokorra eta kontabilitatea .....	13
III.2 Pertsonala .....	13
III.3 Kontratazioa .....	13
III.4 Hitzarmenak.....	15
III.5 Beste batzuk .....	15
IV. FINANTZAREN ANALISIA .....	16
V. URTEKO KONTUAK .....	19
V.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	19
V.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	23
V.3 Foru enpresa-erakunde publikoak .....	26
V.4 Merkataritzako foru sozietateak .....	27
V.5 Foru fundazioak .....	33
ERANSKINAK .....	35
A.1 Araudi ezargarria.....	35
A.2 Aurrekontuko aldaketak.....	35
A.3 Pertsonaleko ordainsariak.....	36
A.3.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	36
A.3.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	36
A.3.3 Enpresa Sektore Publikoa .....	37
A.4 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	38
A.4.1 Erakunde-konpromisoak.....	39
A.5 Sarrerak, zerga zordunak eta hornidurak.....	40
A.6 Finantza inbertsioak epe luzera eta aktibo finantzarioak.....	42



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A.7	Administrazioko kontratazioa.....	43
A.7.1	Bizkaiko Foru Aldundia.....	43
A.7.2	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	47
A.7.3	Enpresa Sektore Publikoa .....	49
A.8	Dirulaguntzen eta hitzarmenen analisia.....	54
A.8.1	Dirulaguntza izendunak.....	54
A.8.2	Dirulaguntza zuzenak.....	55
A.8.3	Deialdi bidez emandako dirulaguntzak.....	56
A.8.4	Hitzarmenak.....	56
A.8.5	Aurreko ekitaldietako dirulaguntzak eta hitzarmenak .....	57
A.9	Bizkaiko Lurralde Historikoaren kontu bateratuak.....	58
	<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>61</b>
	<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>95</b>
<b>I.</b>	<b>INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>97</b>
<b>II.</b>	<b>OPINIÓN.....</b>	<b>99</b>
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	99
II.2	Opinión sobre las Cuentas.....	100
<b>III.</b>	<b>CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>101</b>
III.1	Presupuesto, Cuenta General y Contabilidad.....	101
III.2	Personal .....	101
III.3	Contratación .....	101
III.4	Convenios .....	103
III.5	Otros.....	103
<b>IV.</b>	<b>ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>104</b>
<b>V.</b>	<b>CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>107</b>
V.1	Diputación Foral de Bizkaia .....	107
V.2	Instituto Foral de Asistencia Social .....	111
V.3	Entidades públicas empresariales forales .....	114



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

V.4 Sociedades mercantiles forales .....	115
V.5 Fundaciones forales.....	121
<b>ANEXOS .....</b>	<b>123</b>
A.1 Normativa aplicable.....	123
A.2 Modificaciones presupuestarias.....	123
A.3 Remuneraciones de personal.....	124
A.3.1 Diputación Foral de Bizkaia.....	124
A.3.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	124
A.3.3 Sector Público Empresarial.....	125
A.4 Transferencias y subvenciones concedidas.....	126
A.4.1 Compromisos institucionales .....	127
A.5 Ingresos, deudores tributarios y provisiones.....	128
A.6 Inversiones financieras a largo plazo y activos financieros.....	130
A.7 Contratación administrativa .....	131
A.7.1 Diputación Foral de Bizkaia.....	131
A.7.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	135
A.7.3 Sector Público Empresarial.....	137
A.8 Análisis de subvenciones y convenios .....	142
A.8.1 Subvenciones nominativas.....	142
A.8.2 Subvenciones directas .....	143
A.8.3 Subvenciones concedidas mediante convocatoria .....	144
A.8.4 Convenios .....	144
A.8.5 Subvenciones y convenios de ejercicios anteriores .....	145
A.9 Cuentas consolidadas del Territorio Histórico de Bizkaia .....	146
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>149</b>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 10a

Vitoria-Gasteiz, 10 de octubre de 2022





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

ABBP	Administrazioko Baldintza Berezien Plegua.
AKSP	Arrisku-kapitaleko Sozietatea PYME.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
AOFATB	Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaile bidez onartutakoa.
Aurrekontuen FA 2020	6/2019 FA, abenduaren 27koa, 2020rako Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrei buruzkoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BOS	Bilboko Orkestra Sinfonikoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EEAA	Erakunde autonomoak.
EIC	Energy Intelligence Center.
ELA	Estatuko Loteriak eta Apustuak.
Elkarkidetza	Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
ESP	Enpresa Sektore Publikoa.
FA	Foru Araua.
FD	Foru Dekretua.
FEEP	Foru enpresa-erakunde publikoa.
GLFE	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomoa.
IT	Informazioaren teknologiak.
KEO	Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
SGEITC	Inbertsioko Sozietate Kudeatzailea, molde itxikoa.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Foru sektore publikoko kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia barne hartzen. Nolanahi dela ere, kudeaketan eta barne kontrolean azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

BLHren Kontu Orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eta Enpresa Sektore Publikoaren kontuek osatzen dute (ikus BLHren Kontu Orokorra [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) helbidean).

Hona hemen Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten foru enpresa publikoen, foru merkataritzako sozietateen eta foru fundazioen xehapena:

### FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

ERAKUNDEA	XEDEA
1. Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Ordezkaritza	Estatuko Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren Bizkaiko ordezkaritza.
2. Bizkaiko Tutoretza Erakundea	BLHn bizi direnez gero, desgaituak dauden adinekoen tutoretza bere gain hartu eta Aldundiak tutoretzapean dituen adingabeen ondasunak administratzeko ardura du.
3. BizkaikOA, FEFP	Kultur ondarea zabaltzera zuzendutako jardueren kudeaketa, museoen eta azpiegituren kudeaketa osoa eta ondare arkeologikoa zabaltzea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### FORU MERKATARITZAKO SOZINETATEAK

SOZINETATEA	% PARTAIDETZA	SOZINETATEAREN HELBURUA
1. APARKABISA Bizkaiko Garraio Gunea SA (Aparkabisa).....	79,60	Garraio zentroa eta kamioen aparkalekua.
2. Azpiegiturak, SAMP.....	100	Era guztietako azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea.
3. Bizkaiko Basalan Akziozko Baltzuak S.A., M.P.....	100	Basoko lanak eta natura zaintzeko lanak egitea.
4. Beaz SAU.....	100	Enpresen lehiakortasuna garatu eta sustatzea, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzaile bihurtzeko.
5. Euskalduna Jauregia (SAU).....	100	Musika eta kongresu jauregia eraikitzea eta kudeatzea.
6. Garbiker MPAB (SAU).....	100	Hondakin solidoak tratatzea.
7. Interbiak Bizkaia, SAMP.....	100	Bide azpiegiturak eraikitzea, zaintzea eta haiei buruzko azterlanak eta proiektuak egitea.
8. Lantik SAMP.....	100	Foru Administrazioako informatika zerbitzuak.
9. Seed Bizkaiko Kapitala SGEITC SA.....	53,35	Arrisku kapitaleko funtsak eta ondareak kudeatzea.
10. Seed Bizkaiko Kapitala Mikro SCRIP SA.....	99,64	Mikro-finantzaketaren garapena.
11. Zugaztel MP SA.....	100	Grabazioa, eskaneatzea eta call center-a.
12. Crowdfunding Bizkaia, Finantzaketa Plataforma Parte-hartzailea, SLU.....	100	Web bidez harremanetan jarri inbertsore eta sustatzaileak parte-hartzailetzako inbertsio-proiektuetarako.
13. Sestao Bai SA.....	(*) 60,74	Hirigintzako jarduerak sustatu eta garatzea.

MP: Berezko bitartekoa.

(\*) BFAK haren kapital sozialean parte hartzen du Azpiegiturak SAMPen bitartez.

#### FORU FUNDAZIOAK

FUNDAZIOA	% PARTAIDETZA	FUNDAZIOAREN HELBURUA
1. Azkue.....	75	Teknologia baliatuz euskara sustatzea eta euskarazko proiektu, ekintza eta material digitalak garatzea.
2. Biscaytik.....	100	Komunikazioaren teknologietan ezagutza sustatzea, hiritarrak online bidez hurbiltzea indartzearen.
3. Bizkaia-Bizkaialde.....	100	Bizkaiko kirolaren sustapen eta garapena, lehenetsua emanez errendimenduko kirolari.
4. Juan Crisóstomo de Arriaga- BOS	66,67	Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritza, mantentze-lana, zaintza eta sustapena.

Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bateginean agindutakoari jarraikiz, BLHren Kontu Orokorrak informazio modura Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren Balantzea eta Galera eta Irabazien Kontua besarkatzen dituen eranskina barne hartu du. Kontu hauek ez dira Txosten honetan fiskalizatu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. BFAk larrialdiko kontratazio bidez izapidetu zuen egoitza bateko plaza sozio-sanitarioen zerbitzu-kontratua, 1,1 milioi euroan, eta kontratazio-organo eskudunak hasteko agindurik eman gabe gauzatu zen, SPKLren 120.1 artikulua urratuz (ikus A.7.1, 15. espedientea).
2. Biscaytik Fundazioaren udal-kudeatzaile administratiboaren moduluen mantentze-kontratua, 3 milioi eurorena, ez du kontratazio-organo eskudunak esleitu, SPKLren 150.3 artikulua urratuz (ikus A.7.3, 32.espedientea).
3. BFAk larrialdiko prozedura bidez izapidetutako animalien hilotzak kudeatzeko zerbitzu integrala 2019ko uztailean esleitu zen. Larrialdiaren justifikazio arrazoiturik gabe luzatu da zerbitzua, harik eta 2021eko urriaren 11n beste kontratu bat formalizatu den arte. 2020an zerbitzuaren kostua 325.492 euro izan zen.
4. BizkaiKOA, FEEPeK ez zuen Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu (SPKLren 135.1 artikulua) kudeatzen dituen eraikin, lokal eta instalazioen garbiketa-zerbitzuaren lizitazioa, 1,4 milioi euroan esleitua, BEZa barne (ikus A.7.3, 1. espedientea).
5. Bizkaiko Basalan Akziozko Baltzuak SA, MP entitateak lan-arriskuen prebentziorako zerbitzua (57.119 euro) eta Garbiker MPAB (SA) entitateak makinaren konponketa eta aseguruaren kontratua (236.702 euro BEZ barne eta 302.142 euro, hurrenez hurren), publikotasun- eta lehia-printzipioak bete gabe kontratatu dituzte.
6. BFAk 2020-2022 Garbiketa Zerbitzurako Esparru Akordioaren lizitazioaren hasieran izan duen atzerapenaren ondorioz, 2019ko abenduaren 31n amaitu zen aurreko kontratua gauzatzen jarraitu du 2020ko azaroaren 15era arte. 2020an exekuzioa 5 milioi euro izan da (ikus A.7.1, 28. espedientea).
7. Enpresa Sektore Publikoko lau erakundek jada iraungita zeuden eta luzatu ezin ziren bost zerbitzu-kontratu gauzatzen jarraitu dute (SPKLren 29.4 artikulua). 2020ko exekuzioa 1,2 milioi eurorena izan da, BEZa barne (ikus A.7.3).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan jasotako ez-betetzeak alde batera, BLH osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.



## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeen kontuek (ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2020ko aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 AURREKONTUA, KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA

- Urduñako Udalak 30 urterako lagatako aterpetxearen baja BFaren inbentarioan eta ondare-kontabilitatean 2020an erregistratu da, nahiz lagapen-hitzarmenaren amaiera 2018an amaitu zen. Baja emandako zenbatekoak, 2,7 milioi euro, lursaila, eraikina eta bertan sartutako ondasun higigarriak barne hartzen ditu. BFAk prozedura bat ezarri beharko luke aurrekontuetan islarik ez duten ondare-mugimenduen erregistroa gertatzen diren unean zuzen egingo dela bermatzeko.
- Lantik SAMP entitateak “Kanpoko zerbitzuak” aurrekontuko dotazio mugatzailea 561.941 euroan gainditu du.

#### III.2 PERTSONALA

Enpresa Sektore Publikoaren lehendik dauden hitzarmen kolektiboak, soldata-berrikuspenak edo hitzarmenei atxikitzeke edo haietara hedatzeko akordioak onartzeko, aldeztatik kasuan kasuko BFAko sailen aldeko txostenak eskatu beharko liriteke. Zugaztel MP, SAK hitzarmen kolektiboaren bidez plantillako plazak sortu eta aldatu ditu 2020an, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren baimenik gabe.

#### III.3 KONTRATAZIOA

Azterturik BFAk (ikus A.7.1), GUFEk (ikus A.7.2) eta ESPk (ikus A.7.3) 2020an eta lehenagoko ekitaldietan formalizatutako eta 2020an gauzatutako kontratazio-espeditentak eta erakunde bakoitzaren hirugarrenen gastua eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (KEO) ebazpenak, hona hemen atzeman ditugun akatsak, zeinak gastu publikoaren programazioan edo exekuzio egokian eragina izan baituten:

- KEOk 2020. urteari dagokionez ebatzitako 19 ebazpenetatik 12tan: BFaren lautuan, Garbiker, MPAB (SA) entitatearen bitan, Lantik, SAMPen hirutan, Azpiegiturak, SAMPen bitan eta BizkaiKOaren (FEPP) batean, kontratu-prozeduran interesatuek planteatutako gorabeherek errekurtsoaren xede diren uziak guztiz edo zati batean baiestea ekarri dute (bederatzi kasutan), eta errekurtso galtzea Administrazioak atzera egiteagatik. Komeniko litzateke kontratuak prestatzeko eta esleitzeko faseetan barne-kontrolak areagotzea, adierazitako akatsak saihesteko.
- Enpresa Sektore Publikoak izapidetutako espeditentetan ez da jaso kontratatzailearen profilak barne hartu behar duen kontratuei buruzko informazio eta dokumentazio gutzia:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- oroitidazki justifikagarria, balorazio-txostenak, aktak, kontratuak, aldaketak etab. Azkue Fundazioak ez du bere lizitazioen eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo izapiderik edo dokumentaziorik barne hartzen.
- Azpiegiturak SAMP enpresak onartutako 2020ko Urteko Kontratazio Planak ez ditu barne hartzen IKEa eta Ezkerraldeko Parke Teknologikoaren egoitza izango den eraikina eraikitzeo obrak, 18,2 milioi euroan esleitua (ikus A.7.3, 4. espedienteak).
  - Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoari ez zaio jakinarazi Biscaytik Fundazioaren kontratatzailearen profilean aurretiazko informazioaren iragarkia argitaratu denik, 4.5 milioi euroan esleitutako bi kontraturen eskaintzak aurkezteko epea laburtu ahal izateko (ikus A.7.3, 31. eta 32. espedienteak).
  - Biscaytik Fundazioak 5 milioi euroan esleitutako hiru kontraturen espedienteak onartzeko ebazpena ez du kontratazio-organoak egin (ikus A.7.3, 31, 32 eta 33 espedienteak).
  - Ez da arduradun bat izendatu Lantik, SAMP entitateak 54,7 milioi euroan esleitutako hamabost kontratu eta Biscaytik Fundazioak 4,5 milioi euroan esleitutako bi kontratu ikuskatzeko (ikus A.7.3, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31 eta 32 zk. espedienteak).
  - Lantik, SAMP entitateak 1,2 milioi euroan esleitutako kontratu baten pleguek eta Biscaytik Fundazioak 3,4 milioi euroan esleitutako bi kontraturen pleguek ez dituzte finkatzen eskaintzak neurritz kanpo baxuegiak direla identifikatzea ahalbidetuko luketen parametro objektiboak (ikus A.7.3, 28, 32 eta 33 zk. espedienteak).
  - Ez da egiaztatu Biscaytik Fundazioak 493.697 euroan esleitutako kontratu baten esleipendunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituenik (ikus A.7.3, 33. espedienteak).
  - ESPko entitateek esleitutako kontratuaren esleipen-ebazpenek, Garbiker MPAB, (SA) eta Interbiak Bizkaia SAMP entitateak salbu, ez dute barne hartzen enpresak adierazitako kontratuaren xede den jarduera beteko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboaren informazioa.
  - Esleipena egiteko gehieneko epea gainditu egin da honako kontratu hauetan: BFAk 123,9 milioi euroan esleitutako hamabi kontratutan; Azpiegiturak, SAMPeK 25,7 milioi euroan esleitutako hirutan; Lantik SAMPeK 16,3 milioi euroan esleitutako lautan; eta Biscaytik Fundazioak 493.694 euroan esleitutako kontratu batean (ikus A.7.1, 2, 5, 6, 10, 11, 12, 16, 18, 19, 20, 21 eta 22 zk. espedienteak, eta A.7.3, 3, 4, 5, 16, 25, 26, 29, eta 33 zk. espedienteak).
  - Aparkabisak eta Interbiak Bizkaia, SAMPeK, hurrenez hurren 1,2 eta 4 milioi euroan esleitutako kontratazio alorrean errekurtsio berezia jaso dezaketean ez da errespetatu kontratua sinatzeko 15 laneguneko gutxieneko epea esleipena jakinarazten denetik aurrera (ikus A.7.3, 2 eta 12 zk. espedienteak).
  - BFAk atzerapenez onartu du 5 milioi euroan esleitutako bi obra kontraturen lan-programa (ikus A.7.1; 2 eta 3 zk. espedienteak).
  - Interbiak Bizkaia, SAMP entitatearen obra-kontratu baten esleipendun den Aldi baterako Enpresa-elkartearen osaeraren aldaketa, 48 milioi euroena, kontratazio-organoaren



aurretiazko eta berariazko baimena baino lehen formalizatu da (ikus A.7.3 espedientea 42.1).

- BizkaiKOA, FEEPEk eta Euskalduna Jauregia SAUk 239.388 euro gastatu dituzte lokalak eta eraikinak garbitzeko zerbitzuan, eta 123.966 euro zaintza- eta segurtasun-zerbitzuan, hurrenez hurren, dagozkien luzapenak formalizatu gabe.
- BFAk 6,7 milioi euroan esleitutako hornidura-kontratu baten lau lote eta Azpiegiturak, SAMPEk 11,6 milioi euroan esleitutako bi obra-kontratu gauzatzeko epea luzatu egin da, kontratuak betetzeko epeen etenaldirik edo luzapenik batere onartu gabe (ikus A.7.1, 41. espedientea, 1etik 4ra bitarteko loteak eta A.7.3, 34 eta 35 espedienteak).
- Egoera bera gertatzen da Biscaytik Fundazioak 2017an esleitutako bi kontratutan. Kontratua gauzatzeko epea 2018an amaitzen zen, eta 2020an amaitu dira, zerbitzuen hasierako definizioan eta garapenean akatsak egin direlako. Ekitaldiko gastua 99.885 euro izan da (ikus A.7.3).
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeek hiru hitzarmen formalizatu dituzte GLFErekin egoitza-zentroetan adingabeak hartzeko laguntza-zerbitzua emateko (5,5 milioi euro); ordea, ez dute oroitidazkian adierazi -hitzarmen arautzaileek adierazten dutenaren aurka-2020ko abenduaren 31n justifikazio-kontuetan jasotako etekinak, 700.193 eurorenak, berriz inbertitzeko modua (ikus A.7.2).
- Amaierako ziurtagiria onesteko epea (3 hilabete, harreratik zenbatzen hasita) gainditu egin da BFAk 1,9 milioi euroan esleitutako bi obra kontratutan eta Inberbiak Bizkaia SAMPEk 4,5 milioi euroan esleitutako obra kontratu batean (ikus A.7.1- 38 eta 39 zk. espedienteak eta A.7.3, 37- espedientea).

### III.4 HITZARMENAK

2020-2021 aldian administrazio izaerako funtzio publikoak garatzeko kirol federazioei egindako ekarpenen 2020ko urtekoaren ordainketa, 1,3 milioi euro, hitzarmen berriak sinatzean egin da, 2016-2019 aldiko hitzarmenen jarraipen batzordeak 2019ko memoria ekonomikoei aurretik oniritzirik eman gabe.

### III.5 BESTE BATZUK

Bizkaiko Tutoretza Institutuak eta BizkaiKOA FEEPEk enpresa-erakunde publikoaren izaera juridikoa dute. Gauzatzen duten jardura kontuan hartuta, eta bi erakundeetako batek ere merkatuko baldintzetan jarduten ez duenez gero, gomendagarria litzateke araudi arautzailea egokitzea beren izaera juridikoa benetako jardun-baldintzetara egokitzeko.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

BFAk 2019 eta 2020ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Euroak milakotan		
	2020	2019	BARIAZIOA 2020/2019
<b>Sarrera korronteak</b>	<b>7.559.519</b>	<b>8.264.906</b>	<b>(% 8,53)</b>
Zerga zuzenak eta zeharkakoak .....	7.201.375	7.962.415	
Tasak eta bestelako sarrerak .....	178.450	199.325	
Transferentzia korronteak .....	177.470	100.186	
Ondare-sarrerak .....	2.224	2.980	
<b>Erakunde-konpromisoak</b>	<b>(6.066.498)</b>	<b>(6.677.416)</b>	<b>(% 9,15)</b>
(Estatuari kupoa).....	(523.244)	(478.638)	
(EJri ekarpena) .....	(4.706.670)	(5.280.322)	
(Udalei ekarpena).....	(836.584)	(918.456)	
<b>Sarrera korronte garbiak</b>	<b>1.493.021</b>	<b>1.587.490</b>	<b>(% 5,95)</b>
<b>Gastu korronteak</b>	<b>(1.214.693)</b>	<b>(1.165.970)</b>	<b>% 4,18%</b>
(Langile gastuak).....	(217.478)	(211.963)	
(Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa).....	(427.754)	(421.519)	
(Finantza gastuak).....	(22.096)	(22.384)	
(Transferentzia korronte garbiak) .....	(547.365)	(510.104)	
<b>ERAGIKETA KORRONTEEN EMAITZA (1)</b>	<b>278.328</b>	<b>421.520</b>	<b>(% 33,97)</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA (2)</b>	<b>(171.506)</b>	<b>(220.845)</b>	
Inbertsio errealeen besterentzea .....	44	1.448	
Kapital transferentziengatiko sarrerak .....	14.263	8.898	
(Inbertsio errealetan gastuak).....	(126.814)	(139.561)	
(Kapital transferentziek eragindako gastuak).....	(58.999)	(91.630)	
<b>FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>210.674</b>	<b>(150.127)</b>	
Aktibo finantzarioen bariazio garbia.....	(87.878)	(109.367)	
Pasibo finantzarioen bariazio garbia .....	298.552	(40.760)	
<b>INDARREKO EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>317.496</b>	<b>50.548</b>	
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)</b>	<b>(157.884)</b>	<b>(86.351)</b>	
<b>HORNIDUREN BARIAZIOA (5)</b>	<b>(13.298)</b>	<b>2.109</b>	
<b>BESTELAKO DOIKETAK (6)</b>	<b>(65.488)</b>	<b>(1.335)</b>	
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA (1+2+3+4+5+6)</b>	<b>80.826</b>	<b>(35.029)</b>	



## ERAGIKETA KORRONTEEN EMAITZA

2020ko ekitaldi itxierako likidazioaren arabera, eragiketa korronteek eragindako emaitza aurreko ekitaldian eskuratutakoa baino 143,2 milioi euro txikiagoa da (% 33,97). Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- Diru-sarrera korronteengatiko eskubideak 705,4 milioi euro murriztu dira (-% 8,53). Zuzeneko eta zeharkako zergetan, tasetan eta bestelako diru-sarrera eta ondare-sarreretan izandako jaitsiera (-761, -20,9 eta -0,8 milioi euro, hurrenez hurren) murriztu egin da transferentzia korronteek gehikuntzak eraginda, 77,3 milioi euro.
- Erakunde konpromisoek eragindako gastua 610,9 milioi euro murriztu da (-% 9,15) 2019koaren aldean, itunpeko zergen diru-bilketa % 10,92 murriztu delako. Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei egindako ekarpenari dagokion gastua 573,6 eta 81,9 milioi euro jaitsi da, hurrenez hurren; Estatuari ordaindu beharreko kupoa, berriz, 44,6 milioi euro igo da.
- Gastu arruntek 48,7 milioi euro egin dute gora (% 4,18), nagusiki langile gastuek, ondasun eta zerbitzuen kontratazioko gastuek eta erakunde-konpromisoak kenduta transferentzia arruntek eragindako gastuek, hurrenez hurren, 5,5, 6,2 eta 37,3 milioi euro egin dutelako gora.

## KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA

Emaitza negatiboa 49,3 milioi euro murriztu da, inbertsio errealetan eta kapital-transferentzietan gastu garbia 11,3 eta 38 milioi euro gutxitu delako, hurrenez hurren.

## FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

2020ko ekitaldiko saldo positiboa, 210,7 milioi euro, aurreko ekitaldikoa baino 360,8 milioi euro handiagoa da, -150,1 milioi euro izan baitzen, batez ere zorpetze garbiko eragiketak 339,3 milioi euro igo direlako eta foru-sozietate publikoen, enpresa partaidetuen eta sozietatez kanpoko beste erakunde batzuen akzio-erosketa 22,8 milioi euro jaitsi delako.

## AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

2020an doitutako aurrekontu emaitza 80,8 milioi euro positibo izan da, eta aurreko ekitaldikoa baino 115,8 milioi euro handiagoa, zeina -35 milioi eurokoa izan baitzen. Hona hemen bariazio esanguratsuenak:

- Ekitaldi arruntaren emaitza 266,9 milioi euroan gehitu da.
- Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa 71,5 milioi euro igo da.
- 2020an kaudimen-gabeziatarako eta erakunde konpromisoetarako zuzkiduraren bariazioa 2019koa baino 15,4 milioi euro txikiagoa izan da.



- Covidaren ondorioz 2020an egindako 61,2 milioi euroren doikuntza negatiboa, pandemiaren ondorioz ordainketak malgutzeko neurriak onartzeagatik eskubideak epe laburrean kobratzeko atzerapena aurreikusteko, hala nola aparteko geroratzekak edo ordainketa zatikatuetatik salbuestea.

## ZORPETZEA

2020ko ekitaldian BFAk 414,6 milioi euroren beste zorpetze bat baliatu du eta ekitaldi itxierako zor bizia 298,6 milioi euro gehitu da. 2020ko aurrekontuen Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriak aukera ematen du zorpetze gehigarri hori 2020ko defizita edo diruzaintzako geldikin negatiboa finantzatzeko hitzartu ahal izatea, haren jatorria edozein dela ere.

ESP barne hartzen badugu, 2020an zorpetzeak % 260,7 egin du gora.

	Euroak milakotan	
	2020	2019
BFAren aurrekontuko zorpetzea .....	1.465.248	1.166.696
Merkataritzako foru sozietateen zorpetzea .....	785.741	823.600
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.250.989</b>	<b>1.990.296</b>

## ONDORIOA

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan. Ministroen Kontseiluak 2020ko urriaren 6an arau fiskalak eten zituen 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari igorri zitzaion.

2020an BFAren zorpetzea 298,6 milioi euro handiagoa izan da, nahiz horren zati bat gauzatu den 80,8 milioi euroren aurrekontuko emaitza doitu positibo bilakatuta. BFAren egoera finantzarioa zuzena da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

#### A. AURREKONTU KORRONTEAREN LIKIDAZIOA, 2020

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITATUAK	DIRU-BILK. LIKIDOA	KOB.R. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
1.- Zerga zuzenak .....	4.055.072	-	4.055.072	3.716.236	3.614.116	102.120
2.- Zeharkako zergak .....	4.085.982	-	4.085.982	3.485.139	3.309.587	175.552
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	144.429	662	145.091	178.450	113.702	64.748
4.- Transferentzia korronteak .....	67.192	4.944	72.136	177.470	127.806	49.664
5.- Ondare sarrerak .....	545	36	581	2.224	2.209	15
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	900	-	900	44	44	-
7.- Kapitalezko transferentziak .....	6.382	5.383	11.765	14.263	14.263	-
8.- Aktibo finantzarioen aldak .....	800	1.520	2.320	869	868	1
9.- Pasibo finantzarioen bariazioa .....	116.000	30.000	146.000	414.552	414.552	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.477.302</b>	<b>42.545</b>	<b>8.519.847</b>	<b>7.989.247</b>	<b>7.597.147</b>	<b>392.100</b>

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIGAZIO KITATUAK	ORDAIN. LIKIDOA	ORDAIN. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
1.- Langileen ordainsariak .....	232.390	-	232.390	217.478	213.523	3.955
2.- Gastu korronteak .....	460.835	(7.746)	453.089	427.754	365.824	61.930
3.- Gastu finantzarioak .....	47.496	-	47.496	22.096	22.094	2
4.- Transferentzia korronteak .....	7.325.456	43.226	7.368.682	6.613.863	6.571.884	41.979
5.- Ordainketa osoaren kreditu funtsa .....	2.000	-	2.000	-	-	-
6.- Inbertsio errealak .....	151.496	(17.424)	134.072	126.814	97.778	29.036
7.- Kapitalezko transferentziak .....	62.934	9.202	72.136	58.999	47.597	11.402
8.- Aktibo finantzarioen aldak .....	78.695	15.287	93.982	88.747	86.080	2.667
9.- Pasibo finantzarioen bariazioa .....	116.000	-	116.000	116.000	116.000	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.477.302</b>	<b>42.545</b>	<b>8.519.847</b>	<b>7.671.751</b>	<b>7.520.780</b>	<b>150.971</b>

#### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2020

Euroak milakotan

	HASIERAKO	ESKUBIDE/OBLIGAZIO	KOBR.	AMAIERAKO	EMAITZA/
	ZORRA	KITATUAK	ORDAIN.	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	1.702.400	1.544.516	189.398	1.355.118	(157.884)
Hartzekodunak .....	232.999	232.999	230.290	2.709	-
					<b>(157.884)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTU DOITUAREN EMAITZA 2020		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....		7.989.247
- Obligazio kitatuak .....		(7.671.751)
<b>INDARREKO EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>		<b>317.496</b>
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA (2)</b>		<b>(157.884)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA (1+2)</b>		<b>159.612</b>
Doiketa finantzarioa .....		9.439
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa .....		(22.737)
Bestelako doiketak .....		(65.488)
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA 2020</b>		<b>80.826</b>

D. DIRUZAINZA GELDIKINA 2020.12.31N		Euroak milakotan
		31.12.2020
Aurrekontuko diruzaintzako funts likidoak .....		163.461
Kobratzeko dauden saldoak .....		1.747.218
Ordaintzeko dauden saldoak .....		(153.680)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA</b>		<b>1.756.999</b>
Doiketa finantzarioa .....		(1.261.123)
Bestelako doiketak .....		(61.200)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GARBIA</b>		<b>434.676</b>
Diru-bilketaren aldizkakotzea .....		(257.846)
Ordainketa aldizkakotzea .....		-
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDOA</b>		<b>176.830</b>
Aurrekontuen FARA txertatzea .....		26.482
Udalen partaidetza AMASen .....		552
<b>ATXIKITAKO DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDOA</b>		<b>27.034</b>
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDO ERABILGARRIA</b>		<b>149.796</b>

E. DIRUZAINZA KONTUA 2020.12.31N		Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 2019.12.31n .....		127.985
Aurrekontuko kobrantzak .....		10.653.836
- Aurrekontuko ordainketak .....		(10.618.360)
Aurrekontuko diruzaintza 2020.12.31n (A) .....		163.461
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2019.12.31n .....		266.174
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak .....		13.275.779
- Aurrekontuz kanpoko ordainketak .....		(13.095.418)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2020.12.31n (B) .....		446.535
<b>DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B)</b>		<b>609.996</b>
<b>DIRUZAINZA EZ ERABILGAR. FINANTZEN EUROPAKO BANKUAN</b>		<b>580</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. ZORRAREN EGOERA	Euroak milakotan
AURREKONTUAREN ZORPETZEA 2020-12-31N	1.465.248
2020-12-31N EMANDAKO ABALAK	152.711

G. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK	Euroak milakotan					
SAILA	2021	2022	2023	2024	GUZTIRA	
					GAINERAKOA	SAILA
<b>Iraunkortasuna eta ingurune naturala</b>						
Baimendua .....	31.636	1.647	1.466	893	-	35.642
Erabilia.....	29.044	1.340	1.441	882	-	32.707
<b>Gizarte ekintza</b>						
Baimendua .....	208.294	64.223	60.488	30.936	773.198	1.137.139
Erabilia.....	6.836	3.872	3.283	-	-	13.991
<b>Euskara, kultura eta kirola</b>						
Baimendua .....	4.514	472	218	145	-	5.349
Erabilia.....	3.149	-	-	-	-	3.149
<b>Ogasuna eta finantzak</b>						
Baimendua .....	40.402	424	336	100	39	41.301
Erabilia.....	954	270	200	39	39	1.502
<b>Garraioa eta mugikortasun iraunkorra</b>						
Baimendua .....	96.196	98.603	92.870	88.963	-	376.632
Erabilia.....	825	629	109	-	-	1.563
<b>Herri Admin. eta Erakundearteko Harrem.</b>						
Baimendua .....	19.093	9.556	641	242	-	29.532
Erabilia.....	10.241	7.320	182	7	-	17.750
<b>Sustapen ekonomikoa</b>						
Baimendua .....	21.769	21.354	13.460	23.863	112.520	192.966
Erabilia.....	10.536	8.094	4.945	7.747	16.900	48.222
<b>Enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna</b>						
Baimendua .....	25.796	4.491	115	20	-	30.422
Erabilia.....	19.279	2.134	66	-	-	21.479
<b>Azpiegiturak eta lurralde garapena</b>						
Baimendua .....	188.614	140.978	128.317	100.332	1.068.664	1.626.905
Erabilia.....	122.000	101.786	100.160	100.252	1.065.060	1.489.258
<b>BAIMENDUA GUZTIRA</b>	<b>636.314</b>	<b>341.748</b>	<b>297.911</b>	<b>245.494</b>	<b>1.954.421</b>	<b>3.475.888</b>
<b>ERABILIA GUZTIRA</b>	<b>202.864</b>	<b>125.445</b>	<b>110.386</b>	<b>108.927</b>	<b>1.081.999</b>	<b>1.629.621</b>

Oharra: Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzko finantza planean, BFAk 2020tik 2027ra bitarteko urteetan 256 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten da, urte horietako BFAren Aurrekontu Orokorretan bereiziko direnak, bakoitzari egin beharreko transferentziari dagokion kopuruarekin.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

H. EGOERAREN BALANTZEA 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020	2019
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>2.081.600</b>	<b>2.018.431</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>718.469</b>	<b>803.288</b>
Ibilgetu ukiezina.....	-	-	Ondarea .....	202.112	202.112
Ibilgetu materiala.....	738.525	720.341	Sortutako ondarea.....	506.702	589.318
Taldeko erak. e/luz inb. finan. ....	1.278.377	1.230.145	Emaitz. egozt. bste ondare gehik.batz..	9.655	11.858
Epe luzeko inbertsio finantz. ....	64.698	67.945			
			<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>1.644.538</b>	<b>1.363.008</b>
			Epe luzeko hornidurak .....	335.049	312.312
			Epe luzeko zorrak .....	1.309.489	1.050.696
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>1.115.280</b>	<b>844.235</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>833.873</b>	<b>696.370</b>
Kudeaketa eragiketeng. zord. ....	427.715	369.075	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	155.759	116.000
Kobratzeko bst. kontu btz.....	886	973	Beste zor batzuk .....	378.809	215.250
Bst. erak. baliab. zordunak.....	73.670	76.724	Kudeaketa eragik. hartzekod. ....	155.906	235.468
Inbertsio finan. epe lab. ....	2.580	2.869	Ordaintzeko beste kontu batzuk .....	54.166	35.546
Bst. aktibo baliokide batzuk .....	580	580	Administrazio publikoak.....	5.667	5.409
Diruzaintza .....	609.849	394.014	Bst. erak. baliab. hartzekodunak .....	83.566	88.697
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>3.196.880</b>	<b>2.862.666</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>3.196.880</b>	<b>2.862.666</b>

I. 2020KO ETA 2019KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak milakotan	
	2020	2019		
Zerga-sarrerak.....	7.221.274	7.992.273		
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	193.937	109.477		
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea.....	65.985	61.744		
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	30.663	46.332		
Hornidura gehiegizkoak.....	-	26.778		
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>7.511.859</b>	<b>8.236.604</b>		
Pertsonaleko gastuak .....	(217.631)	(212.209)		
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(6.698.647)	(7.285.592)		
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk. ....	(478.845)	(465.502)		
Ibilgetua amortizatzea.....	(21.787)	(23.050)		
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(7.416.910)</b>	<b>(7.986.353)</b>		
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>94.949</b>	<b>250.251</b>		
Ibilgetu ez finantzarioaren balio-narriadura eta besterengan. emaitza eta aktiboak .....	(31.052)	(1.575)		
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	1.214	462		
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>65.111</b>	<b>249.138</b>		
Sarrera finantzarioak.....	60.841	63.003		
Gastu finantzarioak.....	(21.852)	(22.170)		
Balioaren narriadura, bajak eta taldeko entitateen finantza aktiboaren besterentzeak .....	(38.271)	(33.578)		
Kaudimen-gabeziengatik balio narriadura edo narriaduraren itzulketa .....	9.439	(25.410)		
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>10.157</b>	<b>(18.155)</b>		
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>75.268</b>	<b>230.983</b>		



## V.2 GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA

### A. AURREKONTU KORRONTEAREN LIKIDAZIOA, 2020

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITATUAK	DIRU-BILKETA LIKIDOA	KOB.R. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	86	-	86	396	396	-
4.- Transferentzia korronteak .....	121.860	3.000	124.860	119.695	116.195	3.500
5.- Ondare sarrerak .....	28	-	28	2	2	-
7.- Kapitalezko transferentziak .....	2.396	-	2.396	2.000	2.000	-
8.- Aktibo finantzarioen aldak .....	350	-	350	127	127	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>124.720</b>	<b>3.000</b>	<b>127.720</b>	<b>122.220</b>	<b>118.720</b>	<b>3.500</b>

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIGAZIO KITATUAK	ORDAIN. LIKIDOAK	ORDAIN. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
1.- Langileen ordainsariak .....	71.224	-	71.224	69.686	66.245	3.441
2.- Gastu korronteak .....	50.573	3.000	53.573	50.236	45.893	4.343
4.- Transferentzia korronteak .....	177	-	177	109	108	1
6.- Inbertsio errealak .....	2.306	-	2.306	1.172	778	394
7.- Kapitalezko transferentziak .....	90	-	90	90	69	21
8.- Aktibo finantzarioen aldak .....	350	-	350	118	118	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>124.720</b>	<b>3.000</b>	<b>127.720</b>	<b>121.411</b>	<b>113.211</b>	<b>8.200</b>

### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2020

Euroak milakotan

	HASIERAK.	ESKUBIDE/OBLIGAZIO	KOB.R.	AMAIERAKO	EMAITZA/
	ZORRA	KITATUAK	ORDAINK.AG	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	3.500	3.500	3.500	-	-
Hartzekodunak .....	8.735	8.735	8.705	30	-
					-

### C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2020

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak .....	122.220
- Obligazio kitatuak .....	(121.411)
<b>INDARREKO EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>809</b>
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA</b>	<b>-</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>809</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

D. DIRUZAINZA KONTUA 2020.12.31N		Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 2019.12.31n .....		5.428
Aurrekontuko kobrantzak.....		127.240
- Aurrekontuko ordainketak.....		(126.936)
Aurrekontuko diruzaintza 2020.12.31n (A).....		5.732
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2019.12.31n .....		2.326
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak.....		46.124
- Aurrekontuz kanpoko ordainketak .....		(46.115)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2020.12.31n (B).....		2.335
<b>DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B)</b>		<b>8.067</b>

E. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK						Euroak milakotan
	2021	2022	2023	2024	GUZTIRA	
<b>BAIMENDUA GUZTIRA</b>	<b>6.278</b>	<b>81</b>	<b>53</b>	<b>53</b>	<b>6.465</b>	
<b>ERABILIA GUZTIRA</b>	<b>1.447</b>	<b>53</b>	<b>53</b>	<b>53</b>	<b>1.606</b>	

F. EGOERAREN BALANTZEA 2020 eta 2019ko abenduaren 31n						Euroak milakotan
AKTIBOA	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020	2019	
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>36.610</b>	<b>37.272</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>37.946</b>	<b>37.809</b>	
Ibilgetu materiala .....	36.610	37.272	Ondarea .....	14.077	14.077	
			Sortutako ondarea .....	(8.439)	(9.446)	
			Emaitz. egozt. bste ondare gehik.batz. ....	32.308	33.178	
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>12.144</b>	<b>11.838</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>10.808</b>	<b>11.301</b>	
Zordunak eta kobr. bst. knt. b. ....	3.500	3.500	Epe laburreko zorrak .....	20	17	
Inbertsio finan. epe lab. ....	577	584	Hartzek. eta ordain. bst kontu b. ....	10.788	11.284	
Eskud. eta bst. aktibo lik. baliok. batz.	8.067	7.754				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>48.754</b>	<b>49.110</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>48.754</b>	<b>49.110</b>	





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

G. 2020KO ETA 2019KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	2020	2019
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak .....	122.566	114.876
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea .....	19	49
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	13	27
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>122.598</b>	<b>114.952</b>
Pertsonaleko gastuak .....	(69.708)	(65.278)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(199)	(3.859)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk .....	(50.901)	(47.975)
Ibilgetua amortizatzea .....	(1.148)	(1.147)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(121.956)</b>	<b>(118.259)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>642</b>	<b>(3.307)</b>
Ibilgetu ez finantzarioaren balio-narriadura eta besterengan. emaitza eta aktiboak .....	-	-
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	366	307
<b>ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>1.008</b>	<b>(3.000)</b>
Sarrera finantzarioak .....	-	-
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>1.008</b>	<b>(3.000)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### V.3 FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2020 eta 2019ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	ELA		TUTORETZA INSTITUTUA		BizkaiKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>1.657</b>	<b>1.704</b>	<b>67</b>	<b>16</b>	<b>15.663</b>	<b>15.960</b>
Ibilgetu ukiezina.....	-	-	55	-	24	37
Ibilgetu materiala.....	1.656	1.703	12	16	15.639	15.923
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....	1	1	-	-	-	-
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>257</b>	<b>401</b>	<b>439</b>	<b>452</b>	<b>1.132</b>	<b>1.362</b>
Izakinak.....	-	-	1	5	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	4	90	30	57	724	870
Epe motzeko hornidurak.....	-	-	-	-	-	1
Aldizkatzeak epe motzera.....	3	2	-	-	9	9
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz. ....	250	309	408	390	399	482
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>1.914</b>	<b>2.105</b>	<b>506</b>	<b>468</b>	<b>16.795</b>	<b>17.322</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.712</b>	<b>1.873</b>	<b>67</b>	<b>16</b>	<b>16.222</b>	<b>16.216</b>
Eskrituran jasotako kapitala.....	301	301	-	-	-	-
Erreserbak.....	52	52	-	-	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	450	150	2.864	2.892	4.570	4.570
Aurreko ekitaldien emaitza.....	(279)	(146)	-	-	-	-
Ekitaldiko emaitza.....	(567)	(283)	(2.864)	(2.892)	(4.570)	(4.570)
Funts propioak	(43)	74	-	-	-	-
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	1.755	1.799	67	16	16.222	16.216
<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>20</b>	<b>32</b>	<b>7</b>	<b>5</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Epe luzeko hornidurak.....	20	32	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....	-	-	7	5	-	-
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>182</b>	<b>200</b>	<b>432</b>	<b>447</b>	<b>573</b>	<b>1.106</b>
Epe laburreko zorrak.....	6	6	-	-	47	79
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab. ....	-	-	-	-	1	-
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b. ....	176	194	432	447	525	1.027
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>1.914</b>	<b>2.105</b>	<b>506</b>	<b>468</b>	<b>16.795</b>	<b>17.322</b>

B. 2020KO ETA 2019KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	ELA		TUTORETZA INSTITUTUA		BizkaiKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	697	1.047	-	-	94	206
Hornidurak.....	-	-	(605)	(554)	(601)	(796)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	-	-	-	-	3	-
Pertsonaleko gastuak.....	(1.094)	(1.121)	(1.546)	(1.665)	(1.073)	(1.114)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(170)	(208)	(713)	(666)	(2.999)	(2.873)
Ibilgetua amortizatzea.....	(47)	(47)	(6)	(13)	(970)	(1.005)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozteak.....	45	45	6	13	970	1.005
Hornidura gehiegizkoak.....	1	1	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk.....	1	-	-	(7)	6	8
<b>Ustiapenaren emaitza</b>	<b>(567)</b>	<b>(283)</b>	<b>(2.864)</b>	<b>(2.892)</b>	<b>(4.570)</b>	<b>(4.569)</b>
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(1)</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUEN EMAITZA</b>	<b>(567)</b>	<b>(283)</b>	<b>(2.864)</b>	<b>(2.892)</b>	<b>(4.570)</b>	<b>(4.570)</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>(567)</b>	<b>(283)</b>	<b>(2.864)</b>	<b>(2.892)</b>	<b>(4.570)</b>	<b>(4.570)</b>



## V.4 MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2020 eta 2019ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	APARKABISA		AZPIEGITURAK		BASALAN		BEAZ	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>22.555</b>	<b>23.186</b>	<b>225.042</b>	<b>233.828</b>	<b>315</b>	<b>349</b>	<b>225</b>	<b>243</b>
lbilgetu ukiezina.....	11	-	2.881	2.999	-	-	4	-
lbilgetu materiala.....	409	356	83.364	87.617	315	349	187	171
lbilgetuko inbertsioak.....	22.135	22.830	97.036	101.331	-	-	-	-
Taldeko eta elkartutako enpresetan inberts. e/luz.	-	-	37.509	37.479	-	-	26	59
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....	-	-	4.252	4.402	-	-	8	13
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>262</b>	<b>345</b>	<b>126.266</b>	<b>118.862</b>	<b>3.573</b>	<b>3.039</b>	<b>23.743</b>	<b>18.484</b>
Izakinak.....	-	-	97.225	97.417	28	28	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b...	159	197	12.804	15.125	2.265	1.665	2.101	1.370
Taldeko eta elkartut. enpresen inberts. e/lab.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Epe laburreko finantza inbertsioak.....	-	-	4	4	6	10	-	-
Aldizkatzeak epe laburrera.....	20	18	2.278	2.013	23	20	-	-
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz. ....	83	130	13.955	4.303	1.251	1.316	21.642	17.114
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>22.817</b>	<b>23.531</b>	<b>351.308</b>	<b>352.690</b>	<b>3.888</b>	<b>3.388</b>	<b>23.968</b>	<b>18.727</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>20.142</b>	<b>20.825</b>	<b>265.002</b>	<b>269.982</b>	<b>1.997</b>	<b>1.910</b>	<b>1.983</b>	<b>1.433</b>
Eskrituran jasotako kapitala.....	30.021	30.021	354.629	353.429	950	950	1.921	1.921
Jaulkipen prima.....	-	-	1	1	-	-	-	-
Erreserbak.....	-	-	-	-	960	872	1	1
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(10.454)	(9.434)	(100.982)	(92.407)	-	-	-	(402)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	-	-	-	-	-	3.599	3.598
Ekitaldiko emaitza.....	(1.216)	(1.019)	(6.348)	(8.575)	87	88	(3.671)	(3.759)
<b>Funts propioak</b>	<b>18.351</b>	<b>19.568</b>	<b>247.300</b>	<b>252.448</b>	<b>1.997</b>	<b>1.910</b>	<b>1.850</b>	<b>1.359</b>
<b>Balio aldatagatiko doiketak</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(1.816)</b>	<b>(2.216)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>Dirulaguntzak, dohain. eta jasot. legat.</b>	<b>1.791</b>	<b>1.257</b>	<b>19.518</b>	<b>19.750</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>133</b>	<b>74</b>
<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>300</b>	<b>357</b>	<b>33.438</b>	<b>39.496</b>	<b>32</b>	<b>39</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Epe luzeko hornidurak.....	50	110	-	-	32	39	-	-
Zorrek kreditu erakundeekin epe luzera.....	-	-	31.216	36.953	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....	250	247	2.222	2.543	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/luz.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>2.375</b>	<b>2.349</b>	<b>52.868</b>	<b>43.212</b>	<b>1.859</b>	<b>1.439</b>	<b>21.985</b>	<b>17.294</b>
Epe laburreko hornidurak.....	-	-	782	371	-	-	126	39
Zorrek, kreditu erakundeekin epe lab.....	759	1.139	7.874	11.322	-	-	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	189	221	671	1.317	37	50	20.932	16.519
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.....	-	-	1	-	-	-	1	4
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b. ....	1.427	989	43.540	30.202	1.273	852	926	732
Aldizkatzeak epe laburrera.....	-	-	-	-	549	537	-	-
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>22.817</b>	<b>23.531</b>	<b>351.308</b>	<b>352.690</b>	<b>3.888</b>	<b>3.388</b>	<b>23.968</b>	<b>18.727</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO abenduaren 31n

Euroak milakotan

	EUSKALDUNA J.		GARBIKER		INTERBIAK	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>58.800</b>	<b>60.630</b>	<b>110.599</b>	<b>52.502</b>	<b>1.195.075</b>	<b>1.150.934</b>
lbilgetu ukiezina.....	29	46	-	42	42	54
lbilgetu materiala.....	58.771	60.584	108.305	50.165	1.195.011	1.150.858
lbilgetuko inbertsioak.....	-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartutako enpresetan inberts. e/luz.....	-	-	2.290	2.291	-	-
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....	-	-	4	4	22	22
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>3.591</b>	<b>4.647</b>	<b>33.704</b>	<b>35.869</b>	<b>121.539</b>	<b>158.020</b>
Izakinak.....	-	-	-	-	-	16
2. Suteen detekzio-instalazioen , intrusioaren eta segurtasunaren zaintza, segurtasuna eta osagarriak, zibersegurtasuna eta mantentze-lan prebentziozko eta zuzentzailea .	Zerbitzuak	Irekia	1.192	207	G
<b>AZPIEGITURAK SAMP</b>					
3. Busturialdeko Suhiltzaileen Parkea eraikitzea Arratzun .....	Obrak	Irekia	5.535	1.030	F
4. ElCa izango den eraikina eta Ezkerraldeko Parke Teknologikoaren egoitza .....	Obrak	Irekia	18.222	-	A, F
5. Urduliz dorreko 7. solairutik 11.era bitarteko solairuen barrualdea egokitzea .....	Obrak	Ireki sinplif.	1.894	727	F
<b>GARBIKER MPAB, (SA)</b>					
6. Ibilgailuen biltegia eta gasontzi finkoa zerb. jartzeko proiekt. idaztea eta gauzatzea ...	Obrak	Ireki sinplif.			
Oinarrizko proiektua idaztea eta gauzatzea .....			71	21	
Obrak gauzatzea .....			1.244	-	
7. Zaborteia ustiatzeko makinak .....	Hornidurak	Irekia			
1. lotea: Trinkotzeko makina.....			502	502	
2. lotea: Atzerako hondeamakina kateduna .....			170	170	
3. lotea: Atzerako hondeamakina gurpilduna .....			195	195	
4. lotea: gurpilak kargatzeko pala .....			218	218	
8. Sozietatearen flotarako ibilgailuak .....	Hornidurak	Irekia			
1. lotea: GNK ontziak biltzea .....		Atzera eginda		-	
2. lotea: Dual ontziak biltzea .....		Atzera eginda		-	
3. lotea: kutxa irekiko kamioia, GNK garabiarekin .....			175	175	
4. lotea: Garbiguneko garraiatzeko ibilgailua GNK .....			737	737	
5. lotea: Trakzio-buru duala .....			892	765	
6. lotea: TMB garraiorako GNK kakoa duen kamioia.....			149	149	
7. lotea: TMB garraioko GNK kaxa irekiko kamioia .....			487	487	
9. Ontziak biltzeko ibilgailuak .....	Hornidurak	Irekia			
1. lotea: GNK ontziak .....			1.821	1.821	
2. lotea: Ontzi dualak .....			2.031	1.161	
10. Errefusa garraiatzeko ekipoak .....	Hornidurak	Irekia			
1. lotea: autotrinkotzeko makinak .....			1.144	572	
2. lotea: lixibiatuentzako zisterna .....			144	-	
11. Eskualdeko konpostaje-planten ekipoak hornitzea, instalatzea eta martxan jartzea.....	Hornidurak	Irekia			
1. lotea: Konpostajeko errektore bertikala .....			1.797	898	
2. lotea: Pala kargagailu teleskopikoa.....			189	-	
3. lotea: Birringailua .....			131	131	
4. lotea: Bahekarria .....				Hutsik	



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	MOTA	ESLEIPENA		2020	EGIKAR.	AKATSAK
		PROZED.	ZENBAT.			
<b>INTERBIAK BIZKAIA SAMP</b>						
12. A8 eta BI-644 errepideen arteko lotunea hobetzea, 124. km-tik 125.era, Barakaldon eta Trapagaranen .....	Obrak	Irekia	4.025	167		G
13. BI-3524 errepidea hobetzea, 12+069 k.p-tik 15+800 k.p-ra Ugao-Miraballestik Zeberiora .....	Obrak	Irekia	1.152	144		
14. BLHko bidesarien proiektua idaztea, garatzea, ezartzea eta digitalizazioa abiaraztea ..	Zerbitzuak	Irekia	4.538	-		
15. Europa barneko oinarriko sarearen kongestioa eta kalteberatasuna murrizteko proiektuak idaztea, Bilboko Atlantikoko korridoreko elementu eta nodoetarako sarbideak: sarea saretzea, BI-637 eta A8, VSM/E-70 eta BI-628 errepideen arteko loturaren bidez .....	Zerbitzuak	Irekia	10.539	-		
<b>LANTIK SAMP</b>						
16. Administrazio publikorako aplikazioak garatzea eta mantentzea eta prozedurak implementatzea (ANS) .....	Zerbitzuak	Irekia	8.396	1.961		D, F
17. Arreta teknikoko zerbitzua - Kanal anitzeko urruneko informatika (ABEE) .....	Zerbitzuak	Irekia	1.452	521		D
18. Administrazio-, ekipamendu- eta erabiltzaileentzako arreta-kontsolen kudeaketa .....	Zerbitzuak	Irekia				D
1. lotea: IVANTI kontsola .....			2.099	433		
2. lotea: MCAFEE EPO kontsola .....			2.084	476		
19. Azpiegiturak ezartzeko zerbitzuak .....	Zerbitzuak	Irekia				D
1. lotea: Komunikazioak .....			303	24		
2. lotea: sistema eragileak eta Middleware .....			3.025	550		
20. Aplikazioak garatzea eta mantentzea .....	Zerbitzuak	Irekia	8.756	369		D
21. Datu-base eta ikerketa-txostenetarako sarbidea Informazioaren Teknologian .....	Zerbitzuak	Irekia	2.677	812		D
22. Ogasun eta finantza Sailaren aplikazioen garapena eta mantentzea -ANS 1 .....	Zerbitzuak	Irekia	3.116	146		D
23. Ogasun eta finantza Sailaren aplikazioen garapena eta mantentzea -ANS 2 .....	Zerbitzuak	Irekia	2.671	-		D
24. Ogasun eta finantza Sailaren aplikazioen garapena eta mantentzea -ANS 3 .....	Zerbitzuak	Irekia	5.341	510		D
25. Informazioaren teknologia gaietan Lantiki laguntzeko aholkularitza .....	Zerbitzuak	Irekia	2.671	-		D, F
26. Interneterako sarbidea eta urrutiko egoitzekin interkonexioa .....	Zerbitzuak	Irekia				D, F
1. lotea: .....			605	-		
2. lotea: .....			605	-		
27. Egungo NAS biltegitratze-azpiegitura hobetzea .....	Hornidurak	Irekia	1.756	1.086		D
28. Aplikazioen errendimendua monitorizatzeko soluzioa abian jartzea eskuratzea (APM)	Hornidurak	Irekia	1.207	310		D, E
29. ALLFLASH blokea biltegitratzea NVME ONPREMISE protokoloarekin .....	Hornidurak	Irekia				D, F
1. lotea: .....			1.954	376		
2. lotea: .....			2.115	1.080		
30. Backup korporatiboaren plataformaren hobekuntzak .....	Hornidurak	Irekia	3.866	1.191		D
<b>BISCAYTIK FUNDAZIOA</b>						
31. BiscayTIK proiektutik Bizkaiko toki erak. egindako aplikaz. eremuko aldetet. kudeak.	Zerbitzuak	Irekia	(1) 1.579	56		B, C, D
32. Mantentze zuzentz., ebolutiboa eta moldagarria udal administr. kudeak. Moduluetan	Zerbitzuak	Irekia				B, C, D, E, K
1. lotea: Erregistroa, errolda eta esped., beste sistema batz. integr. eta elkarrerag.....			847	176		
2. lotea: zerga-kudeaketa, borondat. zerga-bilketa, nahitaezko zerga-bilketa Beste sistema batzuekiko integrazioa eta elkarreragingarritasuna.....			2.105	439		
33. Bake Eder ezagutza-zentroa garbitzea.....	Zerbitzuak	Irekia	494	198		C, E, F, L
<b>GUZTIRA</b>			<b>120.303</b>	<b>21.068</b>		

(1) Gehieneko aurrekontua. Aleko prezioetan esleitua.



Hauek dira aurreko ekitaldietan formalizatutako espedienteetatik aztertutakoak:

DESKRIBAPENA	ESLEIPENA HAS. URTEA	ZENBAT.	Euroak milakotan (BEZa barne)			GABEZ./ EGO.
			EXEKUZIOA			
			19.12.31	2020	20.12.31	
<b>AZPIEGITURAK SAMP</b>						
<b>OBRAK</b>						
34. Bi etxebizitza-eraikin eraitsi eta eraikitzea Erandioko Alzaga auzoko 20. eta 23. etxadietan eta higiezin kudeaketako zerbitzuak ematea .....	2017 (*)	10.849	3.773	1.568	5.341	I/ EXEK.
Lursaila ematea ordainketarako .....		9.471				
Espediente aldatua .....	2018	(*) 415				
35. Bilboko Marcelino Oreja kaleko 3 eta 5 zk. lokala gaitzea mendekotasun egoeran dauden zaharrentzat eguneko zentroa egiteko ...	2018	765	762	76	838	I/ AMAI
Amaierako ziurtagiria .....		73				
36. El Cerako eraikinaren proiektua idaztea eta obra zuzentzea.....	2019	579	-	282	282	EGIK.
<b>INTERBIAK BIZKAIA SAMP</b>						
<b>OBRAK</b>						
37. Mamariagako tunelen egokitzapena N-644an .....	2018	4.537	5.161	742	5.903	J/ AMAI
Espediente aldatua .....	2018	955				
Amaierako ziurtagiria .....	2020	501				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(90)				
38. BI-3524 errep. hobetzea, 15+800 k.p-tik 26+U60 k.p-ra Zeberiotik Arteara Osagarria (1) .....	2018	3.097	2.131	632	2.763	(**)
	2019	432				
39. N-240 errepidea hobetzea, 48+500 k.p-tik 50+000 k.p-ra eta 34+700 k.p-tik 35+500 k.p-ra Lemoa eta Zeanuri.....	2018	4.825	2.707	1.629	4.336	(**)
40. Euban sarbideak berregokitzea N-634n 85+000 k.p-tik 87+500 k.p-ra....	2018	3.639	2.587	676	3.263	(**)
41. Peñascal-Bolintxu 9A bide-zatiaren azpiegitura, hiri-saihesbidearen I. fasea	2018	85.907	19.767	30.127	49.894	EGIK.
Espediente aldatua .....	2020	397				
42. Hegoaldeko hiri-saihesbidearen azpiegitura, 9B zatia, Bolintxu-Venta Alta	2019					
1. lotea: 9B-1 azpizatiak Bolintxu-Bentako lotunea .....		47.986	4.215	6.427	10.642	I/ EXEK.
Espediente aldatua .....	2020	(2.414)				
2. lotea: 9B-2 azpizatiak, Seberetxeko tunela .....		45.040	6.588	20.645	27.233	EGIK.
Esp. aldatua 1 .....	2019	2.673				
43. BI-633 errep. hobetz., 52+200 km.puntutik 54+000 k.p-ra, Markina-Berriatun	2019	4.286	593	1.977	2.570	EGIK.
44. Traf. eta bidegor. lasaitz. neurriak ezartzea N-639 errep., Santurtzi-Zierb. artean	2019	1.225	1.100	234	1.334	AMAI.
Amaierako ziurtagiria .....	2020	129				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(20)				
45. Bide-zoruak eta plataf. eraik. BI-630 errepidean, Malabrigo-Traslaviña tartean	2019	6.444	1.015	5.825	6.840	(**)
Espediente aldatua .....	2020	637				
46. BI-631 errepidea hobetzea, 19+700 k.p-tik 22+200 k.p-ra (Mungiako saihsbideko biribilgunea eta Trobikako sarbideak) Larrauraino	2019	5.080	826	3.831	4.657	EGIK.
Espediente aldatua .....	2020	167				
<b>ZERBITZUAK</b>						
47. Peñascal-Venta Alta 9. bide-zatiko obra zuzendaritzaren laguntza tekniko	2008	6.984	2.498	2.474	4.972	EGIK.
hegoaldeko hiri-saihsbidea .....						
Espediente aldatua .....	2018	1.183				
48. Hegoaldeko hiri-saihsbidea eta Artxandako tunelak kontserbatzea, mantentzea eta ustiatzea. 8 urte.....	2013	79.091	65.671	10.077	75.748	EGIK.

.../...



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	HAS. URTEA	ESLEIPENA	EXEKUZIOA			GABEZ./ EGO.
			19.12.31	2020	20.12.31	
49. AP-8a konts., mant. eta ust., El Gallo/Urgoiti eta Ermua artean. 8 urte.....	2013	89.976	75.079	11.550	86.629	EGIK.
Aldi baterako zabaltzea, 2013-2014 .....	2013	631				
50. 9B zatian hegoaldeko hiri-saihesbideko obraren kalitate-kontrola .....	2019	924	8	332	340	EGIK.
51. 9A zatian hegoaldeko hiri-saihesbideko obraren kalitate-kontrola .....	2019	1.052	178	285	463	EGIK.
<b>GUZTIRA</b>		<b>417.426</b>	<b>194.659</b>	<b>99.389</b>	<b>294.048</b>	

(\*) BEZik gabeko zenbatekoak. Esleipendunak ez du BEZa jasanarazten.

(\*\*) Azken ziurtagiria jaso zain.

(1) Alde bien adostasunez atzera eginda.

AKATSAK

Esleipena Euroak milakotan (BEZa barne)

A Ez dago sartuta Urteko Kontratazio Planean .....	18.222
B Eskaintzak aurkezteko epea murriztea, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidali gabe .....	4.531
C Espedientea ez du kontratazio atalak onartu .....	5.025
D Kontratuaren arduraduna izendatu gabe .....	59.230
E Baldintza-agiriek ez dute parametro objektiborik adierazten eskaintza anormalki baxuak identifikatzeko .....	4.653
F Esleipen epea gauditua .....	166.408
G Kontratazioaren arloan errekurso berezia jaso dezakeen kontratua formalizatzeko epea gainditu da .....	5.217
G Lan-programa atzerapenez onartu da .....	4.975
I Gauzatzeko epea luzatzea, etendurak eta/edo luzapenak onartu gabe .....	18.273
J Amaierako ziurtagiriaren onespena atzeratu egin da .....	6.407
K Paragrafo indibiduala Iritziaren atalean	
L Paragrafo indibiduala Irizpenetan	

Hona hemen ESPko entitateek iraungi ostean egikaritzen jarraitu dituzten kontratuak eta horietako bakoitzean 2020an egindako gastua:

Euroak milakotan (BEZa barne)

XEDEA	EPEMUGA	LIZITAZIO		ZENBAT.
		BERRIA		
<b>APARKABISA</b>				
Ekipoak hornitzeko osagai fisikoen hardwarea Outsourcing bidez .....	18/04/30	(*)		112
Zaintza eta segurtasun zerbitzua .....	19/11/15		19/12/30	104
<b>EUSKALDUNA JAUREGIA SAU</b>				
Mantenimendu-zerbitzu osoa .....	20/05/31		20/05/12	208
<b>GARBIKER MPAB, (SA)</b>				
Instalazio mugikorrera atxikitako ibilgailuen, equipo mugikorren eta makinerien mantentze- eta konponketa-zerbitzuaren Esparru Akordioa .....	16/08/31		21/09/13	478
<b>BISCAYTIK FUNDAZIOA</b>				
Biscaytik proiektuan Udal administrazioko kudeatzailearen moduluetan mantentze-lan zuzentzailea, ebolutiboa eta egokitzailea .....	20/05/15		20/02/25	298
<b>GUZTIRA</b>				<b>1.200</b>

(\*) Ez da beste lizitazio bat egin.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Biscaytik Fundazioak 2017an esleitutako honako kontratu hauek, zeinen egikaritzea 2018an amaitu baitzen, 2020an amaitu dira hasierako zehaztapenetan eta zerbitzuen garapenean akatsak egin zirelako; ez da, baina, lanak betetzeko epeetan etenik edo luzapenik batere onartu:

Euroak milakotan (BEZa barne)		
XEDEA	ESLEIPENAREN ZENBAT.	EXEKUZIOA 2020
Zerga-kudeak. eta kontabil. aplikazioen arteko loturaren diseinu teknikoa, garapena eta ezarpena.....	161	56
Jakinarazpenak kudeatzeko aplikazioaren diseinu teknikoa, garapena eta ezarpena .....	58	44
<b>GUZTIRA</b>	<b>219</b>	<b>100</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.8 DIRULAGUNTZEN ETA HITZARMENEN ANALISIA

### A.8.1 DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan		
	O FASEA 2020	KONPROMISO KREDITUA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>			
Lorra, S. Koop.: Abeltzaintzako eta nekazaritzako zerbitzua .....	579	-	
Getxoko udala: Hondartzak garbitzea .....	500	-	
<b>GIZARTE EKINTZA</b>			
Lantegi Batuak Fundazioa: zentro okupazionala .....	6.058	-	
Usoa Lantegia SAU: Errendimendu txikiko enpleguaren lantegi okupazionala eta berezia .....	713	-	
FEKOOR: Bizkaiko bizimodu independentea babesteko programa .....	590	-	
Ranzari Lantegia: Errendimendu txikiko enpleguaren lantegi okupazionala eta berezia .....	562	-	
BIDAIDEAK: garraio egokituko programa .....	513	-	
GORABIDE: aisialdia eta denbora libre .....	465	-	
<b>EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA</b>			
ABAO .....	420	-	
Irratibide SA: Ohiko jardueren finantzaketa eta inbertsioak 2020 .....	415	-	
<b>SUSTAPEN EKONOMIKOA</b>			
Bizkaia Talent: kualifikazio handiko pertsonentzako laguntzak .....	1.400	-	
Bilbao Metropoli 30: Bizkaia kanpoan sustatzea .....	900	-	
Bilboko Merkataritza Ganbera: Bizkaia Exit .....	475	-	
Bilbao Ekintza EPEL: Bilbao-Bizkaia Be Basque .....	400	-	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>			
DEMA elkarte: pertsonen enplegugarritasuna sustatzeko jarduketak .....	(a) 2.420	-	
DEMA elkarte: Azpiegituren eraikuntza .....	152	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.562</b>	<b>-</b>	

(a) Eusko Jaurlaritzak 324.228 euroren ekarpena egin du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.8.2 DIRULAGUNTZA ZUZENAK

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan		
	O FASEA 2020	KONPROMISO KREDITUA	AKATS.
<b>SUSTAPEN EKONOMIKOA</b>			
Bilbao Ekintza EPEL: Nazioarteko posizionamendua .....	750	-	
Elkargi SGR Abalen finantzaketa .....	400	-	
Elkargi SGR Bizkaiko ETEei amortizazioan gabeziak errazteko 1. hitzarmena .....	150	-	
Elkargi SGR: Bizkaiko ETEei amortizazioan gabeziak errazteko 2. hitzarmena .....	(a) 150	-	
Bilboko Merkataritza Ganbera: Bonodenda laguntza.....	2.537	50	
Bilboko Merkataritza Ganbera: Covid-19 turismo bonua .....	1.200	50	
Jakintelligent fundazioa: goi sukaldaritzako esperientzia gastronomikoak sortu eta garatzea .	150	-	
Bilbao Metropoli 30: turismoa sustatzeko jarduerak 2021 .....	150	250	
Kutxabank Fundazioa: Bizkaia Market Place plataforma sortu eta garatzea .....	200	600	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>			
DEMA elkartea: Laborlan II.....	1.335	-	
DEMA elkartea: Jarduera planaren 2 eta 3 lerroak.....	(b) 793	-	
3R Empresa programa (5 enpresa-elkarte).....	591	-	
3R Universidad programa (3 unibertsitate).....	255	-	
ADSIS fundazioa: Hegalak proiektua .....	220	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.881</b>	<b>950</b>	

(a) 2021ean osorik itzulitako dirulaguntza

(b) Eusko Jaurlaritzak 475.773 euroren ekarpena egin du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### A.8.3 DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan			
	D FASEA 2020	O FASEA 2020	KONPROMISO. KREDITUA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>				
35/2020 FD nekazar. sekt. konpentsatzeko laguntz., mendiko nekaz. eremuak	2.365	2.365	-	
37/2020 FD Baso-eremuak garatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak.....	2.593	2.593	836	
<b>SUSTAPEN EKONOMIKOA</b>				
23/2020 FD Nazioartekotze Programa 2020 .....	1.436	1.436	-	
45/2020 FD Suspertze Adimendunaren Programa .....	3.738	3.738	-	
90/2020 FD Covid-19aren krisiak erag. sekt. turistikoko autonom. eta ETEak .	879	879	-	
22/2020 FD Berrikuntza eta inbertsio aurreratua sustatzeko 2i Plana.....	2.400	2.400	1.989	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>				
18/2020 FD Autoenplegua eta langabetuek enpresak sortzea sustatzea .....	3.871	3.871	1.921	
72/2020 FD Enplegua-gazteak gizarteratzeko prestakuntza programa mistoak	1.000	1.000	242	
57/2020 FD Kontratazioa eta enplegua mantentzea, Covid-19 krisialdian .....	2.517	2.516	79	
<b>AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA</b>				
88/2020 Foru Dekretua, banda zabaleko sareak sustatzea biztanleria-eremu barreiatuetan .....	9.852	9.852	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>30.651</b>	<b>30.650</b>	<b>5.067</b>	

### A.8.4 HITZARMENAK

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan		
	O FASEA 2020	KONPROMISO KREDITUA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>			
Bizkaimendi 2020: landa-garapenerako programetan parte hartzea eta laguntzea .....	612	-	
<b>EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA</b>			
Bizkaiko kirol federazioak: funtzio publiko administratiboaren garapena 20-21 .....	1.322	1.322	A
<b>AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA</b>			
Atxondoko Udala: BI-3336 errepidearen zeharbidea berritzea .....	792	-	
Arratzuko Udala: Uarka auzoarekin oinezkoen konektibitatea .....	326	-	
Morgako Udala: Oñarteko zeharbideko obrak BI-3148 errepidea .....	300	-	
Zornotzako Udala: oinezkoentzako iragazkortasuna N-634 errepidean, San Antonio auzoan ..	1.000	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.352</b>	<b>1.322</b>	





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.8.5 AURREKO EKITALDIETAKO DIRULAGUNTZAK ETA HITZARMENAK

AURREKO EKITALDIETAKO EMAKIDAK ETA 2020KO URTEKO KUOTAK Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	AURREKO EKITALDIAK	GASTUA 2020	KONPROM. KREDIT. AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>			
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa: Inbertsioak.....	360.000	1.000	20.000
Gernika – Lumoko Udala Azoka-plaza zaharberritzea .....	530	-	-
<b>GIZARTE EKINTZA</b>			
Eskilara S. Koop. Txikia: AAL PROGRAMME. POSITIVE proiektua .....	27	37	27
Ideable Solutions SL AAL PROGRAMME. FRAAGILE proiektua .....	45	-	105
Deustuko Elizaren Unibertsitatea: AAL PROGRAMME. FRAAGILE proiektua .....	44	-	103
<b>EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA</b>			
Kirol-federazioak: 2016-2019ko funtzioak gauzatzea .....	3.969	-	-
<b>SUSTAPEN EKONOMIKOA</b>			
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa: III. fasea .....	14.500	1.000	-
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa: IV. Fasea .....	1.000	1.500	13.000
CECOBI: Tokiko merkataritza sustatzea .....	450	-	-
Leartiker. Koop.S.: Hybrid Manufacturing Lab. 1 proiektua .....	180	180	-
EHU: diseinu eta fabrikazio aurreratuko masterra teknologia aeronautikoetan .....	85	80	145
191/2018 FD, Bizkaia Sortzailea Programa .....	375	375	-
179/2018 FD, Elkarlanean programa 2019.....	622	124	-
74/2019 FD Trokelgintzaren sektoreko balio-katea indartzeko programa .....	800	155	-
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>			
DEMA elkartea: enplegarritasuna hobetzeko laborategia.....	708	-	-
20/2019 FD, berrikuntza soziolaboraleko proiektuei buruzkoa .....	500	-	-
<b>AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA</b>			
Bilbao Metropoli 30: Bizkaiko lurralde-garapena bultzatzea .....	200	200	-
Eako Udala: BI-3238 errepidea hobetzea, bide-segurtasuna hobetzeko .....	103	-	-
Berriz eta Mallabiko Udalak: BI-3340 errepidea hobetzea (35+250-36+1550 k.p.) .	392	-	-
Plentziako Udala: BI-4155 errepidea, Saratxaga auzoko sarbidea urbanizatzea .....	847	-	-
Zamudioko Udala: oinezkoentzako ibilbideak BI-3784 errepidea .....	645	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>386.022</b>	<b>4.651</b>	<b>33.380</b>

AKATSAK

Euroak milakotan

A Paragrafo indibiduala Irizpenetan.....	1.322
--	-------



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.9 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU BATERATUAK

### A. 2020KO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITATUAK	DIRU-BILKETA LIKIDOA	KOB.R. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
1.- Zerga zuzenak .....	4.055.072	-	4.055.072	3.716.236	3.614.116	102.120
2.-Zeharkako zergak .....	4.085.982	-	4.085.982	3.485.139	3.309.587	175.552
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	144.515	662	145.177	178.847	114.097	64.750
4.- Transferentzia korranteak .....	67.192	7.944	75.136	180.481	244.001	(63.520)
5.- Ondare sarrerak .....	574	36	610	2.226	2.212	14
6.-Inbertsio errealen besterentzea .....	900	-	900	44	44	-
7.- Kapital transferentziak .....	6.382	5.383	11.765	14.263	16.263	(2.000)
8.-Aktibo finantzarioen bariazioa .....	1.150	1.520	2.670	996	996	-
9.-Finantza pasiboen bariazioa .....	116.000	30.000	146.000	414.552	414.552	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.477.767</b>	<b>45.545</b>	<b>8.523.312</b>	<b>7.992.784</b>	<b>7.715.868</b>	<b>276.916</b>

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIGAZIO KITATUAK	ORDAIN. LIKIDOA	ORDAIN. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
1.-Langileriaren ordainsariak .....	303.615	-	303.615	287.164	279.768	7.396
2.- Gastu korranteak .....	511.408	(4.746)	506.662	477.990	411.717	66.273
3.-Pasibo finantzarioak .....	47.496	-	47.496	22.095	22.094	1
4.- Transferentzia korranteak .....	7.203.773	43.226	7.246.999	6.497.289	6.458.809	38.480
5.- Ordainketa osoaren kreditu funtsa .....	2.000	-	2.000	-	-	-
6.- Inbertsio errealak .....	153.802	(17.424)	136.378	127.986	98.556	29.430
7.- Kapital transferentziak .....	60.628	9.202	69.830	57.089	45.666	11.423
8.-Aktibo finantzarioen bariazioa .....	79.045	15.287	94.332	88.865	86.197	2.668
9.-Finantza pasiboen bariazioa .....	116.000	-	116.000	116.000	116.000	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.477.767</b>	<b>45.545</b>	<b>8.523.312</b>	<b>7.674.478</b>	<b>7.518.807</b>	<b>155.671</b>

### B. 2020KO EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIO BATERATUA

Euroak milakotan

	HASIERAKO	ESKUBIDE/OBLIGAZIO	KOB.R.	AMAIERAKO	EMAITZA/
	ZORRA	KITATUAK	ORDAINK.	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	1.702.401	1.544.517	189.398	1.355.119	(157.884)
Hartzekodunak .....	238.234	238.234	235.495	2.739	-
					<b>(157.884)</b>

### C. AURREKONTU DOITUAREN EMAITZA BATERATUA, 2020

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak .....	7.992.784
- Obligazio aitortuak .....	(7.674.478)
<b>INDARREKO EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>	<b>318.306</b>
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOAK (2)</b>	<b>(157.884)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA (1+2)</b>	<b>160.422</b>
Finantza doiketaren aldaketa .....	9.438
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketaren bariazioa .....	(22.737)
Bestelako doiketak .....	(65.488)
<b>AURREKONTU DOITUAREN EMAITZA BATERATUA, 2020</b>	<b>81.635</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

D. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2020	2019	PASIB.	2020	2019
<b>IBILGETUA</b>	<b>2.454.047</b>	<b>2.353.144</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>	<b>477.616</b>	<b>598.293</b>
Ibilgetu immaterialak .....	7.126	7.321	Kapital harpidetua/Ondarea .....	254.776	254.425
Ondasun ibilgetu materialak .....	2.252.922	2.210.716	Kontsolidat. sozietateetan erreser. ....	(3.586.952)	(3.288.028)
Abian dagoen ibilgetu materiala .....	129.072	58.174	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	3.773.652	3.404.308
Ibilgetu finantzarioak .....	64.927	76.933	Bazkide nagus. egotz. galera eta irab...	36.140	227.588
<b>BATERATUTAKO</b>					
<b>MERKATARITZA FUNTSA</b>	<b>5.708</b>	<b>2.922</b>	<b>KANPOKO KIDEAK.....</b>	<b>(2.014)</b>	<b>(3.837)</b>
			Kanpoko kideak.....	(673)	(2.598)
			Kanpo. bazkid.egotz.galera eta irab.....	(1.341)	(1.239)
<b>AKTIBO ERABILKORRA</b>	<b>1.080.293</b>	<b>879.689</b>	<b>KONTSOLIDAZIO DIFER. NEGATIBOA</b>	<b>16.580</b>	<b>6.580</b>
Eskatutako ordainketen akziodunak..	1.463	900			
Izakinak .....	97.275	97.487	<b>HAINBAT EKIT. BANATZ. SARR.</b>	<b>(21.292)</b>	<b>(33.707)</b>
Zordunak .....	157.769	141.110	Kapitalezko dirulaguntzak.....	(19.476)	(31.490)
Aldi bateko finantza inbertsioak.....	2.198	2.503	Beste batzuk .....	(1.816)	(2.217)
Diruzaintza .....	816.222	634.39			
Aldizkatzeagatiko doikun.....	5.366	3.290	<b>ARRISKU ETA GAST. HORNIDURA</b>	<b>374.772</b>	<b>331.381</b>
			<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>	<b>2.088.530</b>	<b>1.805.779</b>
			<b>HARTZEKOD. EPE LABURRERA</b>	<b>605.856</b>	<b>531.266</b>
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>3.540.048</b>	<b>3.235.755</b>	<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>3.540.048</b>	<b>3.235.755</b>

E. 2020 ETA 2019KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	2020	2019	DIRU-SARRERAK	2020	2019
Ustiaetaren kontsumoak .....	123.762	118.605	Sarrera propioak .....	7.495.079	8.297.147
Pertsonaleko gastuak .....	340.703	329.464	Bestelako dirulaguntzak.....	194.350	106.554
Ibilgetua amortiz. zuzkidurak .....	69.254	74.205			
Trafiko zuzk. bariatz. eta kdtu. galerak..	(8.559)	(1.306)			
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	6.997.776	7.557.711			
<b>USTIAKETA MOZKINAK</b>	<b>166.493</b>	<b>325.022</b>			
Gastu finantzarioak.....	60.875	62.947	Sarrera finantzarioak.....	2.538	2.633
Inbertsio finantzarioen zuzkid. aldaketa	38.451	30.342			
<b>JARDUERA ARRUNTEN MOZKINAK</b>	<b>69.705</b>	<b>234.366</b>	<b>FINANTZA EMAITZA NEGAT.</b>	<b>96.788</b>	<b>90.656</b>
Ibilgetu mat. eta immat. zuzk. bar.....	2.321	236	Ibilgetu mat. bestereng. mozkina.....	3.319	2.596
Ibilgetutik eratorritako galerak .....	34.757	9.223	Emaitz.transf. kapitaleko dirulag. ....	(263)	216
Aparteko gastuak .....	1.003	1.623	Sarrera bereziak .....	149	280
			<b>APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>34.876</b>	<b>7.990</b>
<b>ZERGA AURRETIKO MOZKINA</b>	<b>34.829</b>	<b>226.376</b>			
Sozietateen Zerga .....	30	28			
<b>EKITALDIKO EMAITZA .....</b>	<b>34.799</b>	<b>226.348</b>			
Sozietate nagusiaren gal. eta irab.....	36.140	227.587			
Kanpoko bazkideen gal. eta irab.....	(1.341)	(1.239)			





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOAK BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2020KO EKITALDIKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI

\*\*\*\* Pertsona fisikoen eta juridikoen izenak eta identifikagarri gerta daitezkeen datuak ezabatu dira.

### II. IRITZIA

#### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

*1. BFAk larrialdiko kontratazio bidez izapidetu zuen egoitza bateko plaza sozio-sanitarioen zerbitzu-kontratua, 1,1 milioi euroan, eta kontratazio-organo eskudunak hasteko agindurik eman gabe gauzatu zen, SPKLren 120.1 artikulua urratuz (ikus A.7.1, 15. espedientea).*

### GIZARTE EKINTZA SAILAREN ALEGAZIOA

#### 1.1. LARRIALDI IZAPIDETZEA: JUSTIFIKAZIOA

COVID-19aren pandemian hainbat mekanismo ezarri ziren behar zuten pertsonen osasun eta/edo arreta beharrei aurre egiteko, baina bakar-bakarrik larrialdiari aurre egiteko zorrozki beharrezkoak ziren jarduketak egin ziren. Mekanismo horien artean, kontratazio publikoaren arloan baimena eman zen larrialdi izapidetzea erabiltzeko sektore publikoko erakundeek egin behar zituzten kontratuetan pertsonak babesteko beharrei erantzuteko eta COVID-19ari aurre egiteko Ministroen Kontseiluak ezarritako beste neurri batzuk ezartzeko, modu horretan, kasu bakoitzean kontratatutako prestazioa berehala egikaritu zedin. Legezko gaikuntza hori ad hoc ezarri zuen martxoaren 12ko 7/2020 Lege Errege Dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko premiazko neurriak ezartzen dituenak (16.art), eta SPKLren 120. artikuluko larrialdiko izapidetzea egin zen.

COVID-19aren gaixotasuna azkar hedatu zenez, ezinbestekoa izan zen Gizarte Ekintza Sailak jardutea, eta hala, sail honek lankidetzaz etengabe jardun zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta osasun gomendioak betetze aldera erabaki zuen egoitzen foru sarea berrantolatu behar zela eta bitarteko mailako eta izaera soziosanitarioko unitate espezializatuak sortu behar zirela helburu bikoitzarekin: egoitza zentro batean eman daitekeen osasun arreta baino handiagoa behar zuten koronabirusaren infekzio kasuak artatzea (ospitaleratzeko beharrik ez zutenak eta are gehiago COVID-19aren ospitaleratze maila hain handia zenean), eta lehenengo kasu positiboak bideratzea, bereziki banaketa arkitektonikoa zela-eta zentroa sektorizatzea ezinezkoa edo zaila zen egoitza zentroetan, eta aurreko guztia ekiditeko birusa egoitzetako gainerako egoiliarretara hedatzea. Helburu biak lortzeko, zentro espezializatuak bete beharreko betekizuna zen erizaintza zerbitzua izatea asteko 7 egunetako 24 orduetan, eta sektorizazio eta isolamendu gaitasuna izan behar zuten baita ere.

Hala, unitate espezializatu horietako bati larrialdiko kontratazioa egin zitzaion \*\*\*\*ren alde. Zerbitzu prestazioa emateko Gizarte Ekintza Sailaren apirilaren 2ko egitura organikoari



buruzko 70/2012 Dekretuaren arabera eskudunak ziren administrazio unitateek erabaki zuten egoera berehala arintzeko jarduketak martxan jarriko zituztela eta aipatu den larrialdi kontrataziorako martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuak ezarritako aurrekontu gaitzailea jarraitu zen.

## 1.2. 2020/031/071/03 ZERBITZUEN KONTRATUAREN LARRIALDI IZAPIDETZEARI BURUZKO ALDERDIAK

Egoitza zentroak zerbitzu prestazioa emateko baldintzak eta enpresa adjudikaziodun gisa \*\*\*\*\* aukeratu izanaren justifikazioa 2020/031/071/03 espedientearen egiaztatuta geratu dira eta zerbitzu proposatzailearen justifikazio txostenean eta geroago Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusiak sinatutako txostenean eta behin-behineko txosten honen aurretiko alegazioetan ere jaso ziren. Hau da, erabaki teknikoak Gizarte Ekintza Sailaren egitura organikoari jarraiki hartu ziren eta larrialdi kontratazioaren xede zen arloari erreparatu zitzaion. Azpimarratu behar da administrazio jarduketa hori halabeharrez berehala egin behar izan zela BLHko egoitzen foru zerbitzuan COVID-19a zabaltzearen ondorioak ahal zen heinean saihesteko edo arintzeko, 2020ko martxotik aurrera kutsatzeak oso azkar gertatu baitziren. Gainera, kontratatutako prestazioak bakar-bakarrik egoitzen foru sarean gaixotasunak intzidentzia tasa altuena izan zuenean beharrezkoak zirenak izan ziren, zehazki 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 5era.

Larrialdi bideko kontratazioari dagokionez, Sektore publikoko kontratuen 9/2017 Legearen 120.1 artikulua haxe ezartzen du:

“1. Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu, horrelakoetan, salbuespeneko araubide hau bete behar da:

a) Kontratazio-organoak agin dezake, administrazio-espedientea izapidetzeko beharrik gabe, gertatutakoa konpontzeko edo gerora sortutako beharri erantzuteko behar den oro egitea, edo xedea libreki kontrata dezake, osorik edo partez, lege honetan ezarritako betebeharrak formalen pean egon gabe, eta are kreditu nahikoa izateko betebeharrak gabe ere”.

Beraz, artikulua honek salbuetsi egiten du kontratazio espedientea izapidetu beharrenean eta ohiko izapidetzean aurreikusitako betekizun formalen betekizuna.

Legezko premisa horri jarraikiz (SPKLren 120.1 art), eta zerbitzu proposatzaileak prozeduraren justifikazio txostena egin ondoren eta dagokion gastuaren baimena eman eta gero, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz larrialdi prozedura bidez egin zen \*\*\*\*\* egoitzako plaza sozio-sanitarioen zerbitzu kontratazioa egikaritzeko agindua uztailaren 3ko 32468/2020 Foru Aginduaren bitartez gauzatu zen eta hori ebazteko agindu zitzaion Ahalduen Nagusiaren ekainaren 18ko 89/2020 Foru Dekretuaren bitartez Administrazio publikoaren eta erakundeen arteko harremanen foru diputatuari, arrazoituta zegoelako Gizarte Ekintzaren foru diputatuak parte ez hartzea. Egikaritze agindu hori gainera beren beregi zehaztu zen 32468/2020 Foru Aginduan atzeraeraginezko ondorioekin eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.3 artikuluan oinarrituz. Haxe xedatzen du:



“Salbuespen moduan, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzaren baten ordezkioak direnean, eta orobat interesdunaren aldeko ondorioak dakartzatenean, betiere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik egiten ez badie beste inoren eskubide edo interes legitimoiei.”

Atzeraeragin horrek beraz egikaritze aginduaren erabakiaren eraginkortasuna ezartzen du kontratatutako zerbitzuaren prestazioaren hasieran eta estaldura juridikoa ematen dio SPKLren 120.1 artikuluan aurreikusitako eskakizunei jarraikiz.

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOAK

2020/031/071/03 \*\*\*\* EGOITZAKO PLAZA SOZIO-SANITARIOAK COVID-19AK SORTUTAKO OSASUN KRISIAREN ONDORIOZ.

Gizarte Ekintza Sailak bidalitako egikaritzearen agindu proposameneko txostenean ez dago zehaztuta zein den agiriko jarduketak egitea agindu zuen pertsonaren nortasuna. Informazio hori osagarria da eta ez da beharrezkoa Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Sailak izapidetzea zuzen egiteko.

Txosten hori behar bezala sinatu zuten Zentroen Zerbitzuko buruzagitzak, Autonomia pertsonala sustatzeko zuzendariorde nagusiak eta Autonomia pertsonala sustatzeko zuzendari nagusiak.

Bertan xedatutakoarekin bat etorritz, zerbitzu prestazioa 2020ko apirilaren 1ean hasi zen.

Txosten horretan oinarrituz eta SPKLren 120. artikuluekin bat etorritz, Kontratazioko Mahai Nagusiak 2020ko uztailaren 3an \*\*\*\* egoitzako plaza sozio-sanitarioen zerbitzu kontratazioaren espedientea hasteko larrialdi prozedura bidezko baimen proposamena egin zuen COVIDak sortutako osasun krisiaren ondorioz, eta agindu zuen \*\*\*\*en alde egikaritzeko, honakoen arabera:

KONTZEPTUAK	ZENBATEKOA	BEZa	ZENBATEKOA, GUZTIRA
Kostu finkoak egonaldiengatik .....	736.666,67 euro	% 4	766.133,34 euro
Kostua 940 egonaldirengatik (155,00 euro/egunean).....	145.700,00 euro	% 4	151.528,00 euro
ADko langileen ostatua.....	73.278,00 euro	% 10	80.605,80 euro
Azpiegiturak egokitzea .....	55.000,00 euro	% 21	66.550,00 euro
			1.064.817,14 euro

Eta kontratua egikaritzeko epea 2020ko apirilaren 1etik 2020ko ekainaren 5era artekoa zen.

Proposamen hori sinatu zuen Herri administraziorako eta erakunde harremanetarako foru diputatuak 2020ko uztailaren 3an (32468/2020 Foru Agindua) hauekin bat etorritz: Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarria, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorren Testu Bategina garatzen duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onesten duena, eta Ahdun Nagusiaren 89/2020 Foru Dekretua, ekainaren 18koa, zeinaren bidez onartzen baita



Gizarte Ekintzako foru diputatuaren abstentzioa eta agintzen baitzaio Herri Administrazioari eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari sinatzea ekonomia eta aurrekontu izapidetzearen ondoriozko ebazpenak eta kontratazio espedientearekin zerikusia dutenak.

*2. Biscaytik Fundazioaren udal-kudeatzaile administratiboaren moduluen mantentze-kontratua, 3 milioi eurorena, ez du kontratazio-organo eskudunak esleitu, SPKLren 150.3 artikulua urratuz (ikus A.7.3, 32.espedientea).*

## BISKAYTIKEN ALEGAZIOA

Egiaz kontratuaren balio zenbatetsiak gainditu egiten du Administrazio Kontseiluak amankomunitatutako sinadurak dituzten kontratuak egiteko emandako ahaletan ezarritako balioa (2020/007: 2.600.000 euro), eta horregatik adjudikazioaren ebazpena amankomunean sinatu behar izan zen. Ez zen horrela izan, bere garaian kontuan hartu ez zen nahi gabeko ez betetze batengatik. Akats formal horrek ez du ondorioz sortu kontratuen egikaritze zuzenean. Edonola ere, akatsa aintzat hartu da etorkizuneko lizitazioetan errepikatu ez dadin.

*3. BFAk larrialdiko prozedura bidez izapidetutako animalien hilotzak kudeatzeko zerbitzu integrala 2019ko uztailaren 11n esleitu zen. Larrialdiaren justifikazio arrazoiturik gabe luzatu da zerbitzua, harik eta 2021eko urriaren 11n beste kontratu bat formalizatu den arte. 2020an zerbitzuaren kostua 325.492 euro izan zen.*

## HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOAK

2019/038/071/02 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN JASOTAKO ANIMALIEN HILOTZAK HARTZEA, MANIPULATZEA, TRANSFERITZEA, GARRAIATZEA ETA SUNTSITZEA.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko foru diputatuaren uztailaren 16ko 3469/2019 Foru Aginduaren bidez baimena eman zen Bizkaiko Lurralde Historikoan jasotako animalien hilotzak hartzeko, manipulatzeko, transferitzeko, garraiatzeko eta suntsitzeko kontratuaren larrialdi prozedura bidezko espedientea hasteko eta bere egikaritzea agindu zen xehetasun hauen arabera:

\*\*\*\*

1. LOTEA. Animalien hilotzak hartzeko, manipulatzeko eta transferitzeko zerbitzua.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

GEHIENeko ZENBATEKOA	66.000,00 euro
% 10% BEZa	6.600,00 euro
GUZTIRA	72.600,00 euro

Prezio unitario honekin:

DESKRIBAPENA	UNITATEKO PREZIOA	BEZa	GUZTIRA
Animalien hilotzen kg-ak	0,132 euro	% 10	0,145 euro

\*\*\*\*

## 2. LOTEA. Animalien hilotzak garraiatzeko eta suntsitzeko zerbitzua

GEHIENeko ZENBATEKOA	62.500,00 euro
% 10% BEZa	6.250,00 euro
GUZTIRA	68.750,00 euro

Prezio unitario honekin:

DESKRIBAPENA	UNITATEKO PREZIOA	BEZa	GUZTIRA
Animalien hilotzen kg-ak	0,125 euro	% 10	0,138 euro

Egikaritze epea 2019ko uztailearen 1etik aurrera animalien hilotzak hartzeko, manipulatzeko, transferitzeko, garraiatzeko eta suntsitzeko zerbitzuaren kontratu berri bat formalizatu artekoa izan zen.

Bizkaiko Lurralde Historikoko animalien hilotzak kudeatzeko zerbitzuaren kudeaketa osoko zerbitzuen kontratuaren adjudikazio prozeduraren hasiera (2021/0019/071/02 espedientea) Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren foru diputatuaren ekainaren 11ko 2348/2021 Foru Aginduaren bidez onetsi zen eta EBAOra bidali zen 2021ko ekainaren 14an.

Kontratu hori Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren irailaren 16ko 3481/2021 Foru Aginduaren bidez adjudikatu zen eta 2021eko urriaren 11n (1. Lotea: Animalien hilotzak eta Sandach azpiproduktuak hartu eta garraiatzea eta 3. Lotea: Animalien hilotzak eta Sandach azpiproduktuak bitarteko instalazioan hartzea, garraiatzea eta suntsitzea) eta 2021eko urriaren 15ean (2. Lotea: Animalien hilotzak eta Sandach azpiproduktuak hartu eta transferitzea) formalizatu zen.

Azaldutako akatsa Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari bidali zitzaion eta hauxe jakinarazi zen:

“...2019ko apirilaren 15ean \*\*\*\* idazki bat bidali zuen Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailera eta jakinarazi zuen 2019ko ekainaren 30etik aurrera zerbitzua emateari utziko ziola, ezinezkoa zelako egun horretatik aurrera ingurumen baimen integratua berritzeko eskakizunak betetzeko inbertsioari aurre egitea. Hala, eskatu zuen 2020ko urtarrilera arte Bizkaiko Foru Aldundiarekin indarrean egon zen kontratua alderdi bien adostasunarekin suntsiarazteko. Ikusirik azaldutako ingurumeneko araudia betetzearen



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ezinezkotasunean kontratistak errurik ez zuela eta kontuan hartuz badaudela interes publikoa babesten duten gizarte arrazoiak instalazio horretako jarduerarekin ez jarraitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren foru diputatuaren 3074/2019 Foru Aginduaren bitartez erabaki zuen alderdiek adostuta suntsiaraztea Bizkaiko lurralde historikoko animalien hilotzak manipulatzeko, tratatzeko, eraldatzeko eta errausteko zerbitzu kontratua, 2017/064/071/02 espediente zenbakikoa eta \*\*\*\*\* adjudikatutakoa.

Egoera horren aurrean, abeltzaintza ustiapenetako animalien hilotzen suntsiarazteak honako ondorioak izan zituen:

a. 2019ko uztailaren 1etik aurrera EAEko 1. kategoriako materiala suntsitzeko instalazio bakarrak bere jarduera bertan behera utzi zuen.

b. Abeltzaintza ustiapenetan sortzen diren animalien hilotzak jasotzeari uzteak edo horiek helmugarik ez izateak araudi urraketak eta Bizkaiko lurralde historikoaren kalterako osasun arazo larria sor ditzakete.

Horregatik guztiarengatik eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuaren 3469/2019 Foru Aginduaren eta 2019/038/071/02 espedientearen bidez larrialdi prozedura bat hasi zen Bizkaiko abeltzaintza ustiapenetatik hartutako animalien hilotzak hartzeko, manipulatzeko, transferitzeko, garraiatzeko eta suntsitzeko eta bi lote hauetan banatuta zegoen:

1. LOTEA. Animalien hilotzak hartzeko, manipulatzeko eta transferitzeko zerbitzua.

2. LOTEA. Animalien hilotzak garraiatzeko eta suntsitzeko zerbitzua

\*\*\*\*\* (1.lotea) eta \*\*\*\*\* enpresarekin (2. lotea) sinatutako larrialdi kontratuak prezio unitarioetan adjudikatu ziren eta egikaritze epea animalien hilotzak hartzeko, manipulatzeko, transferitzeko, garraiatzeko eta suntsitzeko zerbitzuaren kontratu bat formalizatu artekoa zen.

EAE oinarrizko azpiegiturarik gabe geratu zen animalien hilotzak suntsitu ahal izateko, eta egoera berri horrek arazo larri bat sortu zuen eta euskal administrazioek (3 foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak) balorazio prozesu bat hasi zuten oinarrizko zerbitzua ematen jarraitzeko irtenbideak aztertuz. Beste batzuen artean hauek:

- EAEen animalien hilotzak errausteko egokitu ahalko liratekeen azpiegiturak.
- 3 lurralde historikoentzako transferentzia instalazio bat eraikitzearen bideragarritasuna, bertan EAE osoko animalien hilotzak batzeko eta kontratu komuna lizitatzea EAetik kanpoko instalazio batekin.
- Beste autonomia erkidego batzuetan bezala, Nekazaritza eta basogintzako aseguruaren bidez zerbitzua ematearen aukera.

Erakunde arteko elkarrizketako prozesua 2019ko bigarren seihilekoan hasi zen eta 2020an jarraitu zuen, eta gainera, kontuan hartu behar da COVIDaren pandemiak dena zaildu eta moteldu zuela.



Bizkaian zerbitzua nola emango zen definitu eta gero, 2021 hasieran pleguak prestatzen hasi ziren eta kontratazio espedientea martxan jarri zen. Azkenean 2021eko urriaren 11n adjudikatu zen.”

*5. Bizkaiko Basalan Akziozko Baltzuak SA, MP entitateak lan-arriskuen prebentziorako zerbitzua (57.119 euro) eta Garbiker MPAB (SA) entitateak makinaren konponketa eta aseguruaren kontratua (236.702 euro BEZ barne eta 302.142 euro, hurrenez hurren), publikotasun- eta lehia-printzipioak bete gabe kontratatu dituzte.*

## **BASALANEN ALEGAZIOAK**

2020an hirugarrenarekin \*\*\*\* kontratu txikien bidez egindako gastua hainbat beharrezan dagokie, helburu desberdinekin:

Alde batetik, 14.629,80 euroko gastua, enpresako langileen osasunaren jarraipena egiteko itundutako urteko programari dagokio.

Suteetarako erreten-postura sartzeko egin beharreko esfortzu-probak egiteko 8.820,69 euroak kontratatu dira.

Era berean, enpresa horren bitartez, laguntza teknikoa, prestakuntza, praktika operatiboak egitea eta horren guztiaren landa-ikuskapenak kontratatzen dira. Zerbitzu hauek lanpostu bakoitzaren zereginak betetzean hartu beharreko prebentzio-neurriei dagokie eta ez dute, osasunaren zaintzarekin zerikusirik. Zerbitzu hori 9.753,12 eurokoa da.

Bestalde, 2020an enkargatu zitzaizkien 9.801 euroko zenbait proba espezifiko langile talde baten eginkizunak betetzetik eratorritakoak.

Eta azkenik, 2020an ezohiko enkargu bat egon zen pandemiaren ondorioz: enpresa osoari serologia-probak egin zitzaizkion COVID 19 gaixotasunaren lehen olatua amaitu ondoren. Gastua 7.728,06 eurokoa izan zen.

Horregatik, enpresak interpretatzen du gastu horiek desberdinak direla eta bakoitzak ez duela gainditzen kontratu txikiaren zenbatekoa.

Objetuaren arabera sailkatua, gastuen banakapena eransten da.

## **GARBIKERREN ALEGAZIOAK**

1) Makinak konpontzea

SPKLren 118. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera izapidetu ziren konponketak, baita 2020ko otsailaren 4ko BOEn argitaratutako aldaketaren arabera ere (3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, aseguru pribatuen, pentsio plan eta funtsen, zergen eta zerga-auzien zenbait sektoretako kontratazio publikoaren esparruko Europar Batasuneko zenbait zuzentarau Espainiako ordenamendu juridikoan sartzeko premiazko neurriei buruzkoa).

Ildo horretan esan behar da konponketa guztiak 15.000 euro-tik beherakoak izan zirela.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Bestalde, makineria konpontzeko lizitazioa egitea aurreikusita bazegoen ere, atzeratzea erabaki zen, besteak beste zabortegietako makinak eta konpostaje instalazioa berritzeko lizitazio prozesuak amaitu arte. Hala erabaki zen prozesu horietan balorazio irizpideak sartu zirelako, aurkeztutako eskaintzek berme urte gehigarriak eta doako prebentziozko mantentze lanak jaso zitzaizkion.

Horregatik, ekipamendu bakoitzaren adjudikazioaren benetako egoera zein zen jakin arte, komenigarritzat jo zen makinaren eta flotaren konponketa lizitatu arte itxarotea.

Prozesu hori 2021eko ekitaldian bukatu zen eta geroago zegoen prozedura argitaratu zen “GRBK2021/S/AM210001 ESPARRU AKORDIOA GARBIKER MP AB, SA-REN INDUSTRIA IBILGAILUEN FLOTAREN ETA MAKINEN MANTENTZE LANETARAKO ETA KONPONKETA ZERBITZURAKO ENPRESA HORNITZAILEAK HOMOLOGATZEKO”. Espediente hori urte bukaeran gauzatu zen zegoen kontratuak sinatuta.

## 2) Aseguruak

Aseguru artekaritzan aritzen den erakunde baten bitartez kontratatu dira aseguruak. Erakundeak merkatua aztertu du, publizitate eta lehia printzipioak beteta eta kalitateari eta prezioari dagokionez eskaintzarik onena lortuta. Printzipio horrek eman behar du eskaintzarik onena zehazteko modua, SPKLk berak xedatzen duen bezala.

Ildo horretan, bizitza eta istripu aseguruaren polizak kontratatzeari dagokionez, Garbiker Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentralak sinatutako Esparru Akordioari atxiki zitzaion.

Era berean, 2021eko ekitaldian argitaratu zen GRBK2021/S/CA210012 ERANTZUKIZUN ZIBIL OROKORRAREN ASEGURU POLIZA, KALTEAK ETA IBILGAILUEN FLOTA izeneko espedientea, eta zegoen polizak sinatu ziren 2022ko ekitaldiko arriskuak estaltzeko.

*6. BFAk 2020-2022 Garbiketa Zerbitzurako Esparru Akordioaren lizitazioaren hasieran izan duen atzerapenaren ondorioz, 2019ko abenduaren 31n amaitu zen aurreko kontratua gauzatzeko jarraitu du 2020ko azaroaren 15era arte. 2020an exekuzioa 5 milioi euro izan da (ikus A.7.1, 28. espedientea).*

## HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOAK

2015/036/071/07 BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN SAILETAKO ERAIKINAK ETA ZENTROAK GARBITZEA 2016 ETA 2017 URTEETAN

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko azaroaren 19ko erabakiaren bidez (gai-zerrendaren 14. puntua) onetsi zen garbiketa zerbitzuaren esparru akordioaren adjudikazio prozedura hasia. 2020, 2021 eta 2022 urteetarako izan zen eta behar bezala argitaratu zen.

Adjudikazio prozeduraren hasieran atzerapena gertatu zen aurretiaz inkestak egin behar izan zitzaizkielako hainbat erakunderi atxikitze ondorioetarako eta esparru akordio bat sortzearen bidez kontratazioaren arrazionalizazio teknikoaren bideragarritasun teknikoaren aurretiazko analisia egin behar izan zen baita ere. Gainera, jasotako agiriak sakonean



analizatu behar izan ziren prestazioaren xedea konplexua delako, eta modu horretan erabaki egoki bat hartu nahi izan zen eraginpeko interes guztientzat.

Baina gainera, espedientean jasotakoaren arabera, izapidetzetik kanpoko beste inguruabar batzuk atzeratu egin zuten kontratu berriaren egikaritzearen hasiera.

Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzuak 2016 eta 2017 urteetan Bizkaiko Foru Aldundiaren sailtako eraikinak eta zentroak garbitzeko zerbitzuen kontratuaren egikaritzearekin jarraitzeko beharra justifikatzeko txostenean xedatutakoarekin bat etorriz, administrazio instalazioak garbiketa eta osasun baldintza egokietan mantentzea beharrezko helburua da administrazio jarduera garatu ahal izateko. Horrekin lotuta, Lantokietako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuak hauxe ezartzen du 5. Txukuntasuna, garbiketa mantentze lanak artikuluan. "Lantokietako ordenak, garbiketak eta mantentzeak II. eranskinean xedatutakoa bete beharko du". Eranskin horretan jasota dago lantokiak, zerbitzu lokalak eta horien ekipoak eta instalazioak barne, aldizka eta behar den guztietan garbituko direla une oro baldintza higieniko egokietan mantentzea daitezen. (...) Berehala garbituko dira hondakinak, gantz orbanak, substantzia arriskutsuen hondakinak eta istripuak sor ditzaketen edo laneko giroa kutsatu dezaketen gainerako hondakinak. Garbiketa lanen aldizkakotasuna lantokiaren eta erabileraren arabera izango da.

Azaldutakoaren arabera, garbiketa zerbitzua kentzeak arazo larriak sortu ahalko litzuke eta laneko segurtasun eta osasun arloko aplikatzekoa den araudia urratuko luke eta kontratuaren xede diren instalazioetan lan egiten duten langileen osasuna arriskuan jarriko litzateke.

Aurretik azaldutakoa kontuan hartuz, BFAko eraikinak eta zentroak garbitzeko zerbitzua eteteak kalte larriak sortuko litzuke erakundean, eta beraz beharrezkoa litzateke zerbitzuaren jarraikortasuna mantentzea indarreko kontratua bukatzen denetik gaur egun izapidetzen dagoen esparru akordiotik sortutako kontratu berria hasten denera arte. Hala, kuantifikazio ekonomikoari dagokionez, lau hilabeteko aldia izango litzateke eta baldintzak egungo berberak izango lirateke."

Aurreko guztian oinarrituz ondorioztatu zen interes publikoko arrazoi objektiboak egongo liratekeela ebazpen bat ezartzeko eta horren bitartez bermatzeko zerbitzu prestazioaren jarraikortasuna, izan ere, bukatu egiten da 2020, 2021 eta 2022 urteetako garbiketa zerbitzuaren esparru akordioa lizitatzeko prozedurarekin.

Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko erabakiaren (gai-zerrendako 12. puntua) bitartez onetsi zen Bizkaiko Foru Aldundiaren sailen eraikinak eta zentroak garbitzeko zerbitzu kontratuak jarraitzea 2016 eta 2017 urteetan kontratu berriaren babespean zerbitzu prestazio berri bat hasi arte eta indarreko baldintzekin bat etorriz.

Hala ere, kontuan hartuta COVID 19aren pandemiak sortutako krisi egoera, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko apirilaren 28ko erabakiaren bidez (gai-zerrendatik kanpo zegoen A puntua) beharrezkotzat jo zen ebazpen berri bat onestea beste arrazoi batek sortutako egoera berria babesteko.



Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzuko buruak egindako txostenean xedatutakoarekin bat etorriz: “2019an prozedura bat izapidetu zen kontratu berri bat adjudikatzeko esparru akordio baten bidez eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Lantik SA MPren garbiketa zerbitzurako 2020, 2021 eta 2022 urteetan. Ikusirik izapidetze hori luzatu egin zela, egiaztatu zen ez zela posible izango ezarritako epearen aurretik kontratu berri bat adjudikatzea, hau da, 2019-12-31 baino lehen. Arrazoi horrengatik beharrezkoa izan zen izapidetzeak gauzatzea indarreko kontratua bukatzen zenetik aurrera jarraitu zezan orduan izapidetzen ari ziren esparru akordio berrietik sortutako kontratu berri bat hasi arte.

Une horretan, 2019 bukaeran, kontratu berria adjudikatzeko egin zen estimazioan lau hilabeteko arrazoizko epea ezarri zen, hau da, 2020ko apirilaren 30era arte.

Hala ere, COVID-19aren pandemiak sortutako alarma egoerak osasun larrialdia sortu du mundu mailan eta ezinezkoa izan da hasitako izapidetzearekin jarraitzea eta ez da posible izan esparru akordioa izapidetzea, martxan zeuden prozedura guztietarako epeak eten baitira.

COVID-19aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko ez ohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Legegintza Errege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, geroko prestazioko zerbitzuen kontratu publikoetan kontratu bat iraungitzen denean ez bada formalizatu kontratu berri bat zeinak bermatzen duen prestazioak jarraituko duela COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren ondorioz kontratazio prozedurak eten direlako, eta gainera kontratu berria formalizatu ezin izan denean, aukera dago Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikuluko azken paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzeko, albo batera utzita espediente berriaren lizitazioaren argitalpenaren data.

Aurretik azaldutakoa kontuan hartuta uste dugu BFAko eraikinen eta zentroen garbiketa zerbitzua ematen jarraitu behar dela, eta beraz beharrezkoa da jarraikortasuna mantentzea indarreko kontratua luzatzeko aurreikusitako epea bukatzen denetik (2020ko apirilak 30) gaur egun izapidetzen ari den esparru akordiotik sortutako kontratu berria hasi arte. Ikusirik egoera hau ez ohikoa dela eta ezinezkoa dela iraupena zehaztea, momentuz (albo batera utzi gabe etorkizuneko luzapen posibleak gauzak nola doazen ikusirik) eta ekonomia kuantifikazio ondorioetarako, lau hilabeteko epea eta egungo baldintza berberak ezarri dira.

Bukatzeko, era berean 2020ko uztailaren 28ko Bizkaiko Foru Aldundiaren akordioaren bidez (gai-zerrendako 6. puntua) beharrezkotzat jo zen kontratazio organoak kontratuaren jarraikortasuna onestea Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko txostenarekin bat etorriz arrazoi hauekin:

“BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO SAILEN 2016 ETA 2017 URTEETAKO ERAIKINAK ETA ZENTROAK GARBITZEKO ZERBITZUARI dagokion kontratua \*\*\*\* enpresari adjudikatu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko abenduaren 1eko erabakiaren bidez (gai-zerrendako 16. puntua). Geroago urteko luzapenak izapidetu eta onetsi ziren kontratu horrentzat BFAren 2017ko irailaren 5eko (gai-zerrendako 5. puntua) eta BFAren 2018ko



maiatzaren 29ko (gai-zerrendatik kanpoko puntu bakarra) erabakien bidez. Horrela, egikaritze epea 2019ko abenduaren 31ra arte ezarri zen.

2019an prozedura bat izapidetu zen kontratu berri bat adjudikatzeko esparru akordio baten bidez eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Lantik SA MPren garbiketa zerbitzurako 2020, 2021 eta 2022 urteetan. Ikusirik izapidetze hori luzatu egin zela, egiaztatu zen ez zela posible izango ezarritako epearen aurretik kontratu berri bat adjudikatzea, hau da, 2019-12-31 baino lehen. Arrazoi horregatik beharrezkoa izan zen izapidetzeak gauzatzea indarreko kontratua bukatzen zenetik aurrera jarraitu zezan orduan izapidetzen ari ziren esparru akordio berritik sortutako kontratu berri bat hasi arte.

Une horretan, 2019 bukaeran, kontratu berria adjudikatzeko egin zen estimazioan lau hilabeteko arrazoizko epea ezarri zen, hau da, 2020ko apirilaren 30era arte. Aurrekoa gorabehera, COVID-19aren pandemiak sortutako alarma egoerak osasun larrialdia sortu du mundu mailan eta ezinezkoa izan zen hasitako izapidetzearekin jarraitzea eta esparru akordioa adjudikatzea, martxan zeuden prozedura guztietarako epeak gelditu baitziren. Horregatik Bizkaiko Foru Aldundiaren sailtako eraikinak eta zentroak 2016 eta 2017 urteetan garbitzeko zerbitzu kontratuaren jarraipena onesteko izapidetzea egin behar izan zen COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz eta Bizkaiko Foru Aldundiak onetsi zuen 2020-04-28an gai-zerrendatik kanpoko A puntuan orain lantzen ari garen erabaki proposamena. Beraz, bukaera epe berria 2020ko urriaren 31 zen.

Txostenean zehazten da “egun horretatik aurrera esparru akordioa izapidetzen jarraitu da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020-06-02ko erabakiaren bidez adjudikatu zen (gai-zerrendako 4. puntua) foru aldundiaren erabaki proposamena (...). Erabaki horren aurka errekurtsio berezia aurkeztu zen kontratazio arloan 2020ko ekainaren 23an eta errekurtsio hori gaur egun ebatzi gabe dago.

28/04 erabakiaren ebazpen proposamenean ezarri zen onetsi egin zela COVID-19ak sortutako osasun krisiaren egoera zela bide, 2016. ETA 2017. URTEETARAKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO SAILEN ERAIKIN ETA ZENTROETARAKO GARBIKETA zerbitzuen kontratuak jarraitzea eta \*\*\*\* egungo adjudikaziodunak \*\*\*\* ematea 2020., 2021. eta 2022. URTEETARAKO GARBIKETA-ZERBITZUARI BURUZKO ESPARRU AKORDIOAREN ondorioz kontratua esleitu eta zerbitzua ematen hasi arte.

Azaldu moduan, oraindik ez da kontratua adjudikatu, eta ziurrenik ez da adjudikatuko hilabete batzuk igaro arte. Aurreko kontratuaren jarraipenaren onespenean hitzez hitz jaso zen hauxe: “Ikusirik egoera hau ez ohikoa dela eta ezinezkoa dela iraupena zehaztea, momentuz (albo batera utzi gabe etorkizuneko luzapen posibleak gauzak nola doazen ikusita) ekonomia kuantifikazio ondorioetarako, lau hilabeteko epea eta egungo baldintza berberak ezarri dira“. Lau hilabeteko zenbaketak bukaera epea 2020ko abuztuaren 31ra arte luzatu zuen.

Ebatzi gabeko errekurtsioak sortutako egoera dela-eta gutxienez bi hilabeteko luzapena ezarri beharko da bermatzeko aukera dagoela hizpide dugun esparru akordiotik sortutako kontratua adjudikatzeko. Beraz, bukatzeko azken epea 2020ko urriak 31 izango da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aurreko txostenean azaldutakoa kontuan hartuta uste dugu BFAko eraikinen eta zentroen garbiketa zerbitzua ematen jarraitu behar dela, eta beraz beharrezkoa da jarraikortasuna mantentzea indarreko kontratua luzatzeko aurreikusitako epea bukatzen denetik (2020ko abuztuak 31) gaur egun izapidetzen ari den esparru akordiotik sortutako kontratu berria hasi arte. Ikusirik egoera hau ez ohikoa dela eta ezinezkoa dela iraupena zehaztea, momentuz (albo batera utzi gabe etorkizuneko luzapen posibleak gauzak nola doazen ikusirik) ekonomia kuantifikazio ondorioetarako, lau hilabeteko epea eta egungo baldintza berberak ezarri dira....”

Txosten horretan zenbateko estimatuak daude baita ere eta ez ziren behin betikoak izan eta kontabilitate agiri osagarriak izapidetu behar izan ziren 2020, 2021 eta 2022 urteetarako garbiketa zerbitzurako esparru akordiotik eratorritako kontratua adjudikatu zenera arte. Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko azaroaren 10ean erabakia hartu zuen gai-zerrendako 6. puntuan, eta egikaritze epea 2020ko azaroaren 16an hasi zen onetsitako azken ebazpenean oinarrituz eta bertan alegatutako kausa berberarekin bat etorritz.

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

#### **III.3 KONTRATAZIOA**

*1. KEOk 2020. urteari dagokionez ebatzitako 19 ebazpenetatik 12tan: BFAren lautan, Garbiker, MPAB (SA) entitatearen bitan, Lantik, SAMPen hirutan, Azpiegiturak, SAMPen bitan eta BizkaiKOaren (FEPP) batean, kontratu-prozeduran interesatuek planteatutako gorabeherek errekurtsuaren xede diren uziak guztiz edo zati batean baiestea ekarri dute (bederatzki kasutan), eta errekurtsu galtzea Administrazioak atzera egiteagatik. Komeniko litzateke kontratuak prestatzeko eta esleitzeko faseetan barne-kontrolak areagotzea, adierazitako akatsak saihesteko.*

#### **GARBIKERREN ALEGAZIOA**

Garbikerri buruz KEFAk egindako hiru gorabeherei dagokienez hauxe zehaztu behar da:

- kasu batean KEFAk emandako ebazpena Garbikerren aldekoa izan da.
- beste kasuan ebazpena onespenekoa izan arren, ebazpen horren ondorioz erakunde interesdunak informazioa aurkeztu ahal izan zuen lizitazio prozesutik kanporatua izatearen inguruabarra konpontzeko (horren ondorioz jarri zuen errekurtsua). Zuzentzeko agiriak aurkeztu eta gero Garbikerrek berriz ere erakunde interesdunetik kanporatu zuen eta inguruabar hori ez zen errekurritu bigarren instantzian.





*3. Azpiegiturak SAMP enpresak onartutako 2020ko Urteko Kontratazio Planak ez ditu barne hartzen IKEa eta Ezkerraldeko Parke Teknologikoaren egoitza izango den eraikina eraikitzeke obrak, 18,2 milioi euroan esleitua (ikus A.7.3, 4. espediente).*

## AZPIEGITURAKEN ALEGAZIOA

2020ko Kontratazioko Urteko Plana 2020ko urtarrilaren 29an argitaratu zen. Bertan ez zeuden jasota EICko eraikina eraikitzeke obrak, izan ere, une horretan ez zuten lizitazioaren alderdi batzuen berri. Alderdi horiek azaldu eta lizitazioa argitaratu eta gero, azaroan 2020ko Kontratazioko Urteko Plana eguneratu zen eta beste batzuen artean obra proiektu hau jaso zen.

Kontratazio publikoarekin lotutako jardueraren plangintza eta eguneratzea Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman, Azpiegiturak erakundearen gardentasun-atarian eta Open Data Bizkaian argitaratzen da.

UKP egiteko, Azpiegiturak kontratuak planifikatzeko eta ebaluatzeko barne-tresna du. Bertan, Urteko Kontratazio Plana lantzeaz gain, urtean zehar lizitazioen egoera eguneratzen da eta, beharrezkoa izanez gero, hasiera batean aurreikusi ez diren kontratazioak sartzen dira.

*4. Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoari ez zaio jakinarazi Biscaytik Fundazioaren kontratatzailearen profilean aurretiazko informazioaren iragarkia argitaratu denik, 4.5 milioi euroan esleitutako bi kontraturen eskaintzak aurkezteko epea laburtu ahal izateko (ikus A.7.3, 31. eta 32. espedienteak).*

## BISCAYTIKEN ALEGAZIOA

BIS2020/007 espediente: Lizitazio honetarako eta 2020ko beste batzuetarako aurretiazko informazio iragarkia argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 31n (atxikita dago). 15 eguneko epea SPKLren 156.3.a) artikulua aplikazioan ezartzen da aurretiazko informazioaren iragarkiaren argitalpenean oinarrituz.

BIS2020/0029 espediente: Lizitazio honetarako eta 2020ko beste batzuetarako aurretiazko informazio iragarkia argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 31n (atxikita dago). SPKLren 156.3.a) artikulua ezartzen du kasu horretan eskaintzak aurkezteko epea murriztu eta hamabost eguneko izan daitekeela, baldin eta aurretiazko iragarkia argitaratzeko bidali bada gutxienez lizitazio iragarkia bidali baino hogeita hamabost egun aurretik, kasu honetan bezala. Beraz, baliteke epea hamabost egunetara murriztu izana. Hala ere, lizitazio honetan eskaintzak aurkezteko azken eguna 2020ko uztailaren 10a izan zen, hau da, iragarkia argitaratu zenetik 14. eguna. Akats formal horren ondorioz ez zen aurkaratzerik egin, eta badirudi ez duela oztopatu ezta ere beste lizitatzaile interesdun batzuek parte hartzea. Edonola ere, kontuan hartu behar da, akats berbera ez errepikatzeke.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

5. *Biscaytik Fundazioak 5 milioi euroan esleitutako hiru kontraturen espedientea onartzeko ebazpena ez du kontratazio-organoak egin (ikus A.7.3, 31, 32 eta 33 espedienteak).*

## BISCAYTIKEN ALEGAZIOA

Kontratazio organoak espedientea onesteari dagokionez: Egiaz kontratuen zenbatekoak gainditu egiten du Administrazio Kontseiluak amankomunatatutako sinadurak dituzten kontratuak egiteko emandako ahaletan ezarritako balioa (2020/007: 2.600.000 euro -2020/029:1.305.000 euro -2018/043:500.000 euro), eta horregatik kontratazio organoaren egintzak amankomunatuta sinatu behar izan ziren. Espedientea onesteko ebazpeneko akats formal horrek ez du ondorioz sortu kontratuen egikaritze zuzenean. Edonola ere, akatsa aintzat hartu da etorkizuneko lizitazioetan errepikatu ez dadin.

6. *Ez da arduradun bat izendatu Lantik, SAMP entitateak 54,7 milioi euroan esleitutako hamabost kontratu eta Biscaytik Fundazioak 4,5 milioi euroan esleitutako bi kontratu ikuskatzeko (ikus A.7.3, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31 eta 32 zk. espedienteak).*

## LANTIKEN ALEGAZIOA

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) hauxe ezartzen du:

62. artikulua. Kontratuaren arduraduna.

- Baldintza-agirien arabera kontratuaren jarraipena egiteaz eta haren egikaritze arruntaz arduratzen den unitatea zein den albo batera utzita, kontratazio-organoek kontratuaren arduradun bat izendatu beharko dute. Pertsona horrek, esleitu dizkioten ahalmenen barruan, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko. Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotua edo loturarik gabea.

LANTIK SA MPren eta zerbitzuen/horniduren adjudikaziodunen artean sinatutako kontratuen 3. klausulak argi adierazten du kontratuaren erantzukizun arloa zein den, hitzez hitz honela:

### 16. espedientea.

Administrazio publikorako aplikazioak garatu eta mantentzea eta prozedurak ezartzea (ANS).

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA



Konponbideak-Bezeroak Arloari dagokio erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### Espedientea: 17

Urrutiko arreta tekniko-informatikoko zerbitzua, kanal anitzekoa (ABEE).

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Produkzio Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 18. espedientea.

Administrazio kontsolak kudeatzea, ekipamendua eta erabiltzaileekiko arreta. 1. lotea: IVANTI kontsola

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

2. lotea: MCAFEE EPO kontsola

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 19. espedientea.

Azpiegiturak ezartzeko zerbitzuak. 1. lotea: Komunikazioak

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

2. lotea: Sistema eragileak eta Middleware

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 20. espedientea.

Aplikazioak garatzeko eta mantentzeko zerbitzuak

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Konponbideak-Bezeroak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.



### 21. espedientea.

Datu baseetako eta ikerketa txostenetako sarbidea ITn

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Fidelizazioa-Bezeroak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

### 22. espedientea.

Ogasun eta Finantza Sailaren aplikazioak garatzea eta mantentzea - ANS 1

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Konponbideak-Bezeroak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

### 23. espedientea.

Ogasun eta Finantza Sailaren aplikazioak garatzea eta mantentzea - ANS 2

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Konponbideak-Bezeroak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

### 24. espedientea.

Ogasun eta Finantza Sailaren aplikazioak garatzea eta mantentzea - ANS 3

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Konponbideak-Bezeroak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

### 25. espedientea.

Laguntzeko aholkularitza Lantiki ITen arloan

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Metodologia Proiektuak/Aholkularitza Saila kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

### 26. espedientea.

Internetarako sarbidea eta urruneko egoitzen interkonexioa. 1. lotea:

#### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2. lotea:

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 27. espedientea.

Egungo biltegiratze azpiegitura hobetzea·NAS

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 28. espedientea.

Aplikazioen errendimendua monitorizatzeko irtenbidea eskuratzea eta martxan jartzea (APM)

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 29. espedientea.

ALLFLASH blokea biltegiratzea NVME ONPREMISE protokoloarekin. 1. lotea:

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

2. lotea:

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

#### 30. espedientea.

Korporazioko backup plataforma hobetzea

### 3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Azpiegiturak Arloa kontratuaren arduraduna den heinean, berari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea hitzartutako prestazioa zuzen ematen dela ziurtatzeko.

LANTIK SA MPren hornitzaile guztiekin sinatutako kontratuetan jaso da, beraz, zein den kontratuaren arlo arduraduna.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hori guztia albo batera utzi gabe beharrezkoa izanez gero etorkizunean zuzenketak egitea izapidetuko diren espedienteetako kontratuaren arduraduna zein den adierazteko. Hizpide dugun kasuan, LANTIK SA MPk erabaki zuen horri buruzko informazioa nahikoa, argia eta eskuragarria zela. Beraz, ESKATZEN DUGU 16., 17., 18., 19., 20., 21., 22., 23., 24., 25., 26., 27., 28., 29. eta 30. espedienteak ez kalifikatzeko “D - Ez dago jasota kontratuaren arduradunaren izendapena”. akatsarekin.

## BISCAYTIKEN ALEGAZIOA

Kontratuaren arduraduna izendatzeari dagokionez: Pleguetan kontratuaren arduradunaren zereginak gauzatuko dituen saila edo kargua aipatzen da BiscayTIK Fundazioko langileen pribatutasuna gordetzeko. Edonola ere, kontratuak egikaritzen hasi zirenetik kontratistek badakite zein izango den zuzenean zeregin hori gauzatuko duen pertsona. Ikuskaritzari organigrama bat eman genion, lanpostu bakoitza betetzen duten pertsonekin.

*7. Lantik, SAMP entitateak 1,2 milioi euroan esleitutako kontratu baten pleguek eta Biscaytik Fundazioak 3,4 milioi euroan esleitutako bi kontraturen pleguek ez dituzte finkatzen eskaintzak neurritz kanpo baxuegiak direla identifikatzea ahalbidetuko luketen parametro objektiboak (ikus A.7.3, 28, 32 eta 33 zk. espedienteak).*

## BISCAYTIKEN ALEGAZIOA

Aurreikuspen hori sartu da kontratuaren administrazio klausulen pleguetako azalean eta 15. apartatuan, 2021ean pleguak berrikusi eta gero.

*8. Ez da egiaztatu Biscaytik Fundazioak 493.697 euroan esleitutako kontratu baten esleipendunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituenik (ikus A.7.3, 33. espedienteak).*

## BISCAYTIKEN ALEGAZIOA

Betebehar horiek betetzearen egiaztapena lizitatzailleen erregistroan indarrean dagoen inskripzio ziurtagiri baten bidez egin zen eta bertan dago informazio hori jasota.

*9. ESPko entitateek esleitutako kontratuaren esleipen-ebazpenek, Garbiker MPAB, (SA) eta Interbiak Bizkaia SAMP entitateak salbu, ez dute barne hartzen enpresak adierazitako kontratuaren xede den jarduera beteko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboaren informazioa.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AZPIEGITURAKEN ALEGAZIOA

AZPIEGITURAK enpresak egindako obra-kontratuen lizitazio guztietan, D atalean (Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua eta balio zenbatetsia) aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren berri ematen da.

Karatula honek kontratu-izaera du eta esleitu beharreko kontratuaren baldintzak ezartzen ditu.

*10. Esleipena egiteko gehieneko epea gainditu egin da honako kontratu hauetan: BFAk 123,9 milioi euroan esleitutako hamabi kontratutan; Azpiegiturak, SAMPek 25,7 milioi euroan esleitutako hirutan; Lantik SAMPek 16,3 milioi euroan esleitutako lautan; eta Biscaytik Fundazioak 493.694 euroan esleitutako kontratu batean (ikus A.7.1, 2, 5, 6, 10, 11, 12, 16, 18, 19, 20, 21 eta 22 zk. espedienteak, eta A.7.3, 3, 4, 5, 16, 25, 26, 29, eta 33 zk. espedienteak).*

## AZPIEGITURAKEN ALEGAZIOA

Hiru kontratuak lizitazio hauetakoak dira:

- Busturialdeko suhiltzaileen parkea eraikitzea Arratzun
- EICren eta Ezkerraldeko teknologia parkearen egoitza den eraikina
- Urduliz Dorrearen 7. solairutik 11. solairura arteko solairuen barneko eremua egokitzea.

Hiru lizitazio horietara enpresa asko aurkeztu ziren: 12 Suhiltzaileen Parkea eraikitzeko obrarako eta 7 beste bietarako, eta proposamen bakoitzean dokumentazio asko aztertu behar zen. Beraz, azterketa lanak luzatu egin ziren eta horregatik gainditu zen kontratuak adjudikatzeko gehieneko epea.

## BISCAYTIKEN ALEGAZIOA

33. espedientea (BIS2018/043). Lizitazioa azkarregi argitaratu zen akatsa egon zelako une horretan indarrean zegoen kontratuaren bukaera egunarekin lotuta (uste izan zen 2019an bukatuko zela, baina, 2020ra arteko iraupena zuen). Prozedura indargabetu beharrean, ikusirik ebaluatzeko zaila zen espedientea zela eskaintza asko ebaluatu behar zirelako eta lan konplexua zelako, aurrera egitea erabaki zen. Aurkeztu ziren sei lizitatzailleetatik batek ere ez zuen eskaintza kendu.

SPKLren 158.2 artikulua xedatzen du adjudikazioa egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango dela eskaintzak irekitzen direnetik aurrera zenbatzen hasita, salbu eta administrazio publikoetako kontratuen pleguan beste epe bat adieraztea. Artikulu beraren 4. apartatua ezarritakoarekin bat etorritik, adjudikazioa epe horietan gauzatzen ez bada, lizitatzailleek eskubidea izango dute eskaintza kentzeko eta behin-behineko bermea itzuli behar da horrelakorik egonez gero.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Lizitazioaren azalean ezarrita dago lizitatzailleek beren eskaintzak sei hilabetetan mantendu beharko dituztela, eta beraz ez da gainditu espediente honen adjudikaziorako gehieneko epea.

## **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOAK**

- + BFA-RENTZAKO IBILGAILU BERRIAK.
- + 2022-2022RAKO GARBIKETA ZERBITZUAREN ESPARRU AKORDIOA
- + BFA-KO, FORU ERAKUNDEETAKO, TOKI ERAKUNDEETAKO ETA UDALETAKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUEN KONTRATAZIO ZENTRALIZATUAREN ESPARRU AKORDIOA
- + 2021 – 2022RAKO ITZULPEN ZERBITZUAREN ESPARRU AKORDIOA
- + METROPOLIKO BIDE NODOETAN PILAKETAK MURRIZTEKO ETA EUROPAKO SAREAREKIN LOTZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA. KUKULARRA-ARRONTEGI TARTEA (2020/019/073/10).
- + ELORRIKO N-636 ERREPIDEKO 35+800 ETA 36+620 KP-EN ARTEAN HIRUGARREN ERREI BAT JARTZEKO PROIEKTUA (2020/027/073/10).
- + AHALMEN HANDIKO SAREAREN KONTSERBAZIOA, MANTENTZEA ETA OPERAZIOA (2020/023/073/10).
- + LAGUNTZA TEKNIKOA ERAIKUNTZA PROIEKTUA IDAZTEKO ETA HORIEN BIDEZ MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA LURRALDE OREKA, BIZKAIKO ERREPIDEEN FORU SAREKO PILAKETAK MURRIZTEA ETA SARETzea ERRAZTEKO ETA AZTERLAN ESPEZIFIKOAK EDO BESTELAKO AGIRI TEKNIKOAK EGITEA (2020/001/073/10).
- + LAGUNTZA TEKNIKOA LEIOAKO ERREPIDEKO TUNELAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUA IDAZTEKO BI-637 (2020/004/073/10).
- + BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN AHALMEN HANDIKO ERREPIDE SAREKO ERREPIDEEN USTIAPENA, ERABILERARI ETA DEFENTSARI, ZAINZTA JARDUEREI ETA FORU ARAUARI EGOKITUTAKO ERABILERAK KONTROLATZEKO BEHARREZKOAK DIREN GAINERAKO JARDUEREI DAGOKIENEZ, FORU AZPIEGITURAK ETA HORIEN BABES- EREMUAK ERABILERA DESEGOKIETATIK BABESTEKO (2020/026/073/10).
- + LAGUNTZA TEKNIKOA LURRALDE GARAPENEN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ERREPIDE SEGURTASUN, HOBEKUNTZA ETA MODERDINAZIO OBREN OBRA ETA KALITATEAREN KONTROL ZUZENDARITZARI (2019/039/073/10).
- + LAGUNTZA TEKNIKOA ETA AHOLKULARITZA ERREPIDE BERRIKUNTZAKO ZERBITZUARI (2020/0015/073/10).



## ALEGAZIOA

Aurretik aipatutako espedienteetan gainditu egin da eskaintzak ireki zirenetik adjudikaziora arte ezarritako 2 hilabeteko epea<sup>1</sup>. Hala ere, prozedurazko irregulartasun bat da, azken egintzaren deuseztagarritasuna ez dakarrena, hau da, ez du eraginik egintzaren baliozkotasunean.

Aurretik aipatutakoari jarraiki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APEL) 48. artikulua honako hau dio hirugarren idatz-zatian: “ezarritako epetik kanpo egindako administrazio jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna”. Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dute sorrarazten deuseztagarritasunik edo deuseztagarritasunik. Ondorioz, arau orokorra egintzaren baliozkotasuna baino ez da, zeren eta epez kanpo egindako administrazio-egintzak baliozkoak baitira, epez kanpo egindako egintza irregularra bada ere, eta ohiko ondorioak izango baditu. Beraz, kontratazio mahaiaik aurreikusitako epea igaro ondoren egindako proposamena baliozkoa da.

Are gehiago, aipatu behar da SPKLren 158.4 artikulua xedatzen duela epeen barne adjudikazioa ez egitearen ondorioa dela lizitatzailerak eskubidea izatea eskaintza kentzeko eta behin-behineko bermea jasotzeko horrelakorik egonez gero, baina hori ez da gertatu hizpide dugun kasuan. Hala ere, kasu horietan, enpresa lizitatzailerak beren eskaintzei eusten dietela, hala badagokio, eskaintzak kendu izana adierazi gabe.

Espediente batzuen xehetasunak aztertuta hauxe azaldu behar da:

2020/023/073/10 espedienteari dagokionez sail sustatzaileak adierazi du egun haietako langileen prestutasunari lotutako gaia izan zela, eta zehazki irizpide automatikoen gutun-azala baloratzeko eta atxiki beharreko bitartekoen eskuragarritasun eraginkorra egiaztatuzko izandako atzerapena. Prozesu horiek atzeratu egin ziren, izan ere zorrozki eskatutakoa betetzen zutela zehazteko ebaluazioa ondorengo kontratuaren arduradun zuzen bakoitzarentzat egin zuten hainbat arlotan: Ohiko azpiegitura, ez-ohiko azpiegitura, superregitura eta neguko bidezaintza. Gainera, arlo guztietako balorazioak bateratzeko bilerak egin ziren, eta baliteke horien ondorioz izapidetzea atzeratu izana.

2020/004/073/10 espedienteari dagokionez, kasu horretan beharrezkoa izan zen adjudikazio osagarrirako agiriak eskatzea, eta horregatik, beste batzuen artean gainditu egin zen eskaintzak irekitzeko SPKLren 157. artikuluan ezarritako gehieneko epea.

Bukatzeko, 2019/039/073/10 espedienteari dagokionez espediente horren izapidetzeko atzerapenik handiena gertatu zen 02-11n C gutun-azala ireki zenetik 04-28an B gutun-azala ireki zenera arte. Atzerapen hori gertatzearen arrazoia izan zen pandemia sortu zela eta etxeratze aginduak espedienteen izapidetzean eragin zuela, administrazio prozedurak eten egin baitziren.

---

<sup>1</sup> Itzulpen Zerbitzuaren esparru akordioan aipatu den 2 hilabeteko epea 15 egun baliodunean luzatu behar da, izan ere, enpresetako batek bere eskaintzaren bideragarritasuna justifikatu behar izan zuen ustez anormaltasun horren barnean zegoelako. (158.3 art.)



Hala, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak, honako hau dio hirugarren xedapen gehigarriaren lehenengo apartatua: Sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epe-mugak eta epeak eteten dira. Epeen zenbaketari berrekingo zaio errege-dekretuak edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen dutenean.

*11. Aparkabisak eta Interbiak Bizkaia, SAMPek, hurrenez hurren 1,2 eta 4 milioi euroan esleitutako kontratazio alorrean errekurtsio berezia jaso dezaketean bi kontratutan ez da errespetatu kontratua sinatzeko 15 laneguneko gutxieneko epea esleipena jakinarazten denetik aurrera (ikus A.7.3, 2 eta 12 zk. espedienteak).*

## APARKABISAREN ALEGAZIOA

Data horietan, COVID-19ak ezarritako protokolo zorrotzak zirela eta, eta murrizketak handiagoak izango ziren beldurragatik, kontratuaren formalizazioa arindu nahi izan zen, gure jarduerarako funtsezko zerbitzua baita.

## INTERBIAKEN ALEGAZIOA

Akats horri erantzunez, gure ustez ez da inolako gorabeherarik gertatu espediente honetan, eta errespetatu egin da, formalki bada ere, errekurtsio bereziaren mendeko kontratua formalizatzeko epea. Alde horretatik, 2020ko abuztuaren 3an kontratu horren adjudikazio ebazpena sinatu zen, eta kontratua 2020ko abuztuaren 19an formalizatu zen eta errekurtsio bereziari atxikitako kontratuak formalizatzeko 15 egun baliouduneko epea errespetatu zen.

Ondorioztatu behar dugu inguruabar horiek ez zutela kalterik eragin, zeren eta lizitatzailen batek ere ez baitzuen adierazi kontratazioaren arloko errekurtsio berezia jartzeko interesik zuenik, ez epe horretan, ezta kontratua formalizatu ondoren ere.

*12. BFAk atzerapenez onartu du 5 milioi euroan esleitutako bi obra kontraturen lan-programa (ikus A.7.1; 2 eta 3 zk. espedienteak).*

## AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Metropoliko bide-nodoetan pilaketak murriztea eta Europa barneko sarearekiko konexioa. Kukularra-Arrontegi tartea:

Kontratu horri dagokionez, 2020ko abendu hasieran ABEE adjudikaziodunak zenbait bertsio egin eta bidali zituen akatsekin. Obra zuzendaritzak zuzentzeko eskatu dio kontratistari. Laneko programa urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 144. artikuluan xedatutakoari zuzen egokitzen zaionera arte ez zaio ofizialki bidaltzen Kontratazio Zerbitzuari.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Edozelan ere, egia da ez direla bete Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 144.artikuluko izapideak, kontratistak kontratua formalizatu eta kontratazio organoak onetsi eta 30 eguneko epean laneko programa aurkezteari eta ondoren kontratazio organoak onesteari dagokienez. Era berean, egia da kontratu horiek kontratistarentzat lotesleak diren laneko programak izan dituztela obrak egiten hasi zirenetik, izan ere, lizitatzen diren eraikuntza-proiektuek obra plana izateaz gain, kontratu horien Administrazio Klausula Berezien Pleguetan adjudikazio irizpide gisa jasota zegoen (kontratu izaerakoak) obra antolatzearen gaineko balorazioa. Beraz, adjudikaziodunek obra plana eskaini dute eta baloratu egin da. Hori guztia kontratazio organoak laneko programa atzerapenez onetsi aurretik, azaldutako arrazoiengatik.

Akats hori prozedura Baliogabetzen Ez Duen irregulartasuntzat jotzen da.

## **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOAK**

+ METROPOLIKO BIDE NODOETAN PILAKETAK MURRIZTEKO ETA EUROPAKO SAREAREKIN LOTZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA. KUKULARRA-ARRONTEGI TARTEA (2020/019/073/10).

+ ARTIGASKO ZABORTEGIAREN EZKERREKO IBARRA IRAGAZGAIZTEKO BIGARREN FASEA (2019/041/073/02).

## **ALEGAZIOA**

Ildo horretan, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 144. artikuluko 1. atalean ezarritako izapide formalak bete ez badira ere – Kontratistak laneko programa aurkeztea gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, kontratua formalizatzen denetik eta kontratazio organoak onartzen duenetik zenbatzen hasita–, adierazitako lizitazio horren dokumentazioa betetzen da, aipatutako 144. artikuluan jasotako eraikuntza proiektuen barruan.

Era berean, kontratu horiek arautzen dituzten Administrazio Klausula Partikularren Pleguetan lanen programazioa, trafikoa sortuko diren eraginak eta obraren faseak eta obraren antolamendua eta egikaritze prozesuak baloratzen dituen adjudikazio irizpide bat ezarri da hurrenez hurren, eta beraz, enpresa adjudikaziodunak obra plana eskaini du eta antolamendu hori baloratu da.

Era berean, adierazi behar da kontratu hori arautzen duen Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 1.1 atalak ezartzen duela kontratu-izaera izango dutela “Administrazio Klausula Berezien Pleguek, baita haren azal eta eranskinek eta Baldintza Teknikoen Pleguak eta ondoriozko kontratu dokumentuek. Baita ere proiektuaren dokumentuak (memoria izan ezik, obra-unitateak osatzen dituzten oinarriko materialen deskribapenarekin bat ez datorren guztian), lizitazioaren xede diren obrak, laneko programa eta prezioen taulak”.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Azaldutakoarengatik, epeari dagokionez formalki 144. artikuluan ezarritako prozedura jarraitu ez bada ere, kontratu horiek dagozkien Laneko Programak izan dituzte obrak egikaritzen hasi zirenetik, eta programa horiek kontratistei lotu zaizkie.

Era berean, APELen 48. artikulua hiru garren atalean honako hau ezarri da: “ezarritako epetik kanpo egindako administrazio jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna”. Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dute sorrarazten deuseztagarritasunik edo deuseztagarritasunik.

*13. Interbiak Bizkaia, SAMP entitatearen obra-kontratu baten esleipendun den Aldi baterako Enpresa-elkartearen osaeraren aldaketa, 48 milioi eurorena, kontratazio-organoaren aurretzako eta berariazko baimena baino lehen formalizatu da (ikus A.7.3 espedientea 42.1).*

## INTERBIAKEN ALEGAZIOA

Akats horri erantzunez, administrazio publikoetako kontratuen pleguaren “Kontratuaren lagapena” izeneko 10. klausulan hitzez hitz baieztatzen da ez dela aplikatzekoa lagatzaileak gutxienez kontratuaren % 20 egikarituta izatea lagapena egiten denean kontratista lehiaketan baldin badago, nahiz eta likidazio fasea irekita egon, edo lehiaketa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi badio negoziazioak hasi dituela hitzarmeneko aurreratutako proposamen baterako birfinantzaketarako atxikipenak eskuratzeko, lehiaketa legerian aurreikusitako terminoetan.

Interbiak **\*\*\*\***aren Kudeatzailtza Batzordearen 7. akta irakurri zuen eta atxiki den 2020ko martxoaren 18an egin zuen bileran eskatu zien gainerako bazkideei ados egon zitezen **\*\*\*\*** enpresak **\*\*\*\***n zituen partaidetzak ordezkatzeko. Azaldu zuten eskari hori eta bere lehenengo justifikazioa nagusiki nabarmentzen dena:

“**\*\*\*\*** egun dituen inguruabar ekonomikoetan oinarrituta dagoela.”

**\*\*\*\***aren jarraikortasuna errazteko helburua du.

Hilabetea bukatu aurretik egiteko eskatzen da, sartuko den bazkidearekin hitzartutako aurreakordioa ixteko.

Bestalde, garrantzitsua da aurrekoarekin batera kontuan hartu behar diren bi gai aipatzea: i) COVID19a agertu izana eta kontratuaren egikaritzea etetea behartu zuena, atxiki den 2020ko martxoaren 26ko aktan agertzen den bezala, eta horrek, noski, egikaritzea moteldu zuen, eta ii) kontratistak hirugarrenekin laneko konpromisoak egikaritu izana. Beste batzuen artean benetan onartutako ziurtagiriekin batera, gutxienez adjudikazio aurrekontuaren % 20 gauzatzearen baliokide izango zen zenbatekoak sortu zituzten konpromiso horiek.

Aurreko inguruabarrak kontuan hartuta eta kontratuaren egikaritzea bermatzeko, eskaera onetsi zen **\*\*\*\***ren inguruabar ekonomikoetan oinarrituz (hartzekodunen konkurtsora sartu zen). Modu horretan **\*\*\*\***aren jarraikortasuna erraztu nahi zen, albo batera utzi gabe ondoren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia.



14. BizkaiKOA, FEEPEk eta Euskalduna Jauregia SAUk 239.388 euro gastatu dituzte lokalak eta eraikinak garbitzeko zerbitzuan, eta 123.966 euro zaintza- eta segurtasun-zerbitzuan, hurrenez hurren, dagozkien luzapenak formalizatu gabe.

## BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

2020ko martxoaren 9an BizkaiKOAko kontratazio organoak erabaki zuen \*\*\*\*ri adjudikatzea aurretik adjudikatutako kontratuaren luzapena sinatu zen epearen barnean BizkaiKOA EPEFek kudeatzen dituen eraikinak, lokalak eta instalazioak garbitzeko lanak.

Hala ere, Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19-ak sortutako osasun larrialdi egoera kudeatzeko alarma egoera deklaritzen duenak, (BOE, 67.zk, 2020ko martxoaren 14koa) hirugarren xedapen gehigarrian dekretatu zuen administrazio epeak etetea, eta ondorioz kontratazio prozedura honi aplikatzekoak zaizkion epeak baita ere, eta ezarri zuen epeak indarrean jarriko zirela berriz ere errege dekretuak indarraldia galtzen zuenean edo hala bazegokion luzapenek indarraldia galtzen zutenean.

2020-05-25ean eta maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren (BOE, 123. zk., 2020ko maiatzak 6) zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez terminoen etetea eta kontratazio prozeduren epeen gelditzea indargabetu eta gero, \*\*\*\* lizitatzailleak errekurtsio berezia aurkeztu zuen kontratazio arloan Bizkaiko Kontratu Errekurtsoen Foru Administrazio Auzitegian BizkaiKOaren martxoaren 9ko kontratazio organoaren erabakiaren aurka. Horren bidez BIZKAIKOA EPEFen eraikinak, lokalak eta instalazioak garbitzeko eta kontserbatzeko zerbitzua adjudikatu zitzaion \*\*\*\*ri.

Auzitegi horrek 2020ko ekainaren 22ko erabakiaren bidez adostu zuen \*\*\*\*k kontratua \*\*\*\*ri adjudikatzearen aurka aurkeztutako alegazioak partzialki onestea eta agindu zuen jarduketan atzeraeragina aplikatzeko, horrela txosten teknikoan emandako puntuazioak berriz ere arrazoitu zitezten.

2020ko uztailaren 2an puntuazioen txosten berria eman zen automatikoki zenbatzen ez diren irizpideei buruz eta zehaztasun gehiago zituen txosten horrek, Bizkaiko Kontratu Errekurtsoen Foru Administrazio Auzitegiak bere ebazpenean eskatu zuen bezala. Txosten hori Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman argitaratu zen epe eta forma zuzenean.

2020ko irailaren 7an aipatutako txostena ikusirik eta alderdietako batek ere alegaziorik aurkeztu gabe, BizkaiKOAko kontratazio mahaiak berriz ere adjudikazio proposamena egin zuen \*\*\*\*ren alde. Proposamen hori onetsi egin zuen Bizkaikoako Administrazio Kontseiluak 2020ko irailaren 11n.

Azkenik, 2020ko urriaren 21ean eta Sektore publikoko kontratuen legearen 44. artikuluan ezarritakoa betez enpresa lizitatzaillei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun balioduneko epea igaro eta gero, kontratua sinatu zen 3 urteko egikaritze epearekin 2020ko azaroaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

Konkurtsua epean adjudikatu eta gero eta errekurtsuaren epea bukatzeaz zegoela, martxoaren 14an argitaratutako legeek arrazoitu egin zuten errekurtsua aurkezteko epeak etetea, eta berriz ere aktibatu ziren maiatzaren 6an.



Maiatzaren 25ean \*\*\*\*\* enpresak errekurtsua aurkeztu zuen martxoaren 9ko adjudikazio ebazpenaren aurka.

Errekurtsua ebatzi eta gero konkurtsua berriz ere adjudikatu zen 2020ko urriaren 21ean eta egikaritzea 2020ko azaroaren 1ean hasi zen.

Laburbilduz, interes publikoko arrazoiak daude zerbitzu prestazioa ez eteteko kontratazio organoak aurreikusi ezin zituen eta adjudikazio prozeduran jazo ziren gertakizunen eraginen ondorioz, eta prestazioarekin jarraitu zen adjudikatutako baldintza berdinetan, kontratu berri bat adjudikatu zenera arte 2020ko azaroaren 1ean.

## EUSKALDUNAREN ALEGAZIOA

Zaintza- eta segurtasun-zerbitzuaren kontratua 2020/10/31n amaitu zen (azken luzapena). Mugaeguna iritsi zenean, zerbitzua lizitazio-prozesuan zegoen. Prozedura 2020/07/24an hasi zen (lizitazio-iragarkia EHAAn argitaratu zen eguna).

- Lehen argitalpenaren data: 2020/07/24 14:16:43
- Azken argitalpenaren data: 2021/05/11 16:36:05
- Espedientea: EUS20200602

Ondorioz, aipatutako kontratuan (zaintza eta segurtasuna), Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen (SPKL) 29. artikulua 4. apartatuan aurreikusitako kasua zegoen.

Hau da, kontratu berriaren lizitazio-iragarkia aribideko kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago argitaratuta zegoen. Gainera, zerbitzuaren jarraitutasuna funtsezkoa zen Erakundearen jarduerarako.

Kontratuaren luzapena (artikulu horretan ezarritakoaren arabera). SPKLren 29. artikuluko 4. artikulua) 2021/02/02ra arte luzatu zen, lizitatutako kontratu berria formalizatu zen egunera arte. Hau da, bederatzi hilabete baino gutxiagorako eta luzapenaren xede den kontratuan jasotako baldintza berberetan.

Ikuskatutako aldi (2020/11/01etik 2020/12/31ra) segurtasun- eta zaintza-zerbitzua emateagatik ordaindutako zenbatekoa 86.792,02 euro-koa da, eta ez adierazitako 123.966,39 euro-koa, zerbitzuaren esleipendunak egindako eta dagozkion faktura zuzentzaileetan jasotako ordainketen ondorioz.

*15. BFAk 6,7 milioi euroan esleitutako hornidura-kontratu baten lau lote eta Azpiegiturak, SAMPeK 11,6 milioi euroan esleitutako bi obra-kontratu gauzatzeko epea luzatu egin da, kontratuak betetzeko epeen etenaldirik edo luzapenik batere onartu gabe (ikus A.7.1, 41. espedientea, 1etik 4ra bitarteko loteak eta A.7.3, 34 eta 35 espedienteak). Egoera bera gertatzen da Biscaytik Fundazioak 2017an esleitutako bi kontratutan. Kontratua gauzatzeko epea 2018an amaitzen zen, eta*



*2020an amaitu dira, zerbitzuen hasierako definizioan eta garapenean akatsak egin direlako. Ekitaldiko gastua 99.885 euro izan da (ikus A.7.3).*

## **AZPIEGITURAKEN ALEGAZIOA**

Lehen kontratuan “Erandioko Alzaga auzoko 20. eta 23. Etxadietan eraispen obrak eta etxebizitzaren bi eraikin eraikitzeak”, egikaritze epea luzatu zen nagusiki hiru faktore hauengatik:

- Higiezinak zimendatzen ari zirenean sortu ziren eraikuntzako arazo teknikoak.
- Covid-19arengatik sortutako atzerapenak.
- Enpresa eraikitzaileari egoztekoak zaizkion atzerapenak, lanak motel egin zituztelako eta enpresa azpikontratatuak aldatu zituztelako.

